

GOIERRITARRA

124 p.k. Ordizia — Goierriko euskaldunon alldizkaria — dohain banatuko da

GOIERRITARRA ALDIZKARIA.

18. zenbakia.

91ko Urria-Azaroa

S
E
G
U
R
A
N

U
M
E



A
B
A
N
D
O
N
A
T
U
A
K

"Umeak denboraren baitan". Nikolas Lekuona, 1933.

- ❖ "ARGI-BERRI" ETA GOIERRIKO BERTSOLARI ESKOLAKO JOXE MARI BARANDIARANekin ELKARRIZKETA
- ❖ LIZARRUSTI DEFENDA DEZAGUN
- ❖ UR LOHITUA KANILETAN UDA PARTEAN
- ❖ BEASAIN EZAGUTUZ; ORDIZIAKO EUSKAL JAIK DIRELA ETA EZ DIRELA; KONPONDUKO AL DA TXIRRINDUZALEEN ARRISKUA; ZERTAN DEN GOIHERRIKO EUSKAL ESKOLA, ETA ABAR KOLABORAZIOEN ARTEAN
- ❖ GOIERRITARRARATUAK, KARTAK, BERTSOAK DENBORA PASARAKO, TXUTXUMUTXUAK, EDITORIAL GISA, AGENDA, OSASUN AHOLKUAK ETA BESTE
- ❖ BESTE GOIERRITARKERI BAT

— PERIODIKUAK —

publizitatea

LAN KIDE AURREZKIA  EUSKADIKO KUTXA

H
E
R
R
I
G
I
N
T
Z
A
N


190
Sukurtsal

164
Kooperatiba
Elkartu

20.000
Lanpostua

230.000
Milioiko Aurrezkia

**Euskadiko
Kutxa**




EUSKARAZ BIZI

Euskaraz bizi!

izan euskaldun! **dek**

GOIERRITARRA HILABETEKARIA

18. zenbakia. 91.eko Urriaren bukaeratik Azaro bukaerara.

Debaldeko alea.

Tirada: 1.700 ale.

1.500 harpidedun.

Argitaratzailea: "Goierritarrek Kultur Elkarte. Dorre- etxea behe (Correos azpia).

Tfna: 889612.

124 posta kutxa. Ordizia.

Izena emango dizu GOIERRITARRAn iragartzeak, aldizkari bat baino gehiago baita honakoa. Dei 88 96 12 telefonora.

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren eta Goierriko Udal askoren dirulaguntza jaso izan du azken kurtsioan.

Erredakzio arduraduna: Jon Mikel Arano. **Publizitate arduraduna eta laguntzailea:** Mikel Albisu. **Aholkulariak:** Tere Irastortza eta Andoni Sarriegi. **Kolaboratzaileak:** Andoni Sarriegi, Maite Erauskin, Ramon Ugalde, Mikel Leunda, Mikel Aramendi, "Zerraila", J.I. Iturrioz, Edurne Garmendia, Aitor Larrañaga, Patxi Zubizarreta, Jexux Lete "Ibai-Ertz", I. Lasa, Idurre Eskisabel, Pello Sarriegi,...

Gure eskerrik beroenak: Goierriko Udal laguntzaileei. Aristrain Fundazioari. Goierriko Herrien Ekintzari. "Argia", Eroski, "Egunkaria", Lankide Aurrezkia eta "Antza"ri. Era batera edo bestera lagundu nahi liguketenei, gauzak errazten dizkiguzuenoi

eta nola edo hala parte hartzeko irrikitan zaudeteno.

Fotokonposaketa, maketazioa eta inprimaketa: ANTZA. Lasarte-Oriako Industrialdea, 1-2 Pabilioiak. Tfnoa: 37 15 45.

Lege Gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRA aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Editorial gisa

EUSKAL-ESNALEA

4'g. urtea

1914 - Lotazilla - 30

96'g. zenbakia

POLLIKI TA BETI

1914'gn. urtea joan zaigu. Bere egunak, poztunak ala alaigeak, eztitugu berriz ikusiko. Joan diran orduak etzaizkigu berriz aurrean jarriko.

Ala da, baña igarotako egunak eztira osoro igarotzen. Aztarnak, atzak, uzten dituzte gure bizialdian, ta atz, aztarna oiek, buru gainean ditugu beti. Joan ziran aroetako egipenen ondorengo mendean gaude.

Gerorako naikunde bat egiazta-tzeko, askotan berialaxe asi bear degu aukerazko bideak autatu ta jarraitzen.

Betiko jua ziralta uste genuen urtien ondorengoetan bilduta bezela gabiltz geienian.

Ori dala ta, etorkizunera begira bizi bear degu. Gero zer naiko degun, ura egiteko bideak asi bear ditugu berialaxe. Gaurkoa, epe labur-laburra da; luzexego biarkoa. Gabiltzen, ba, urruti xamarrera begira. Orain asi, gero iritxi naiko dezutena egiten. Goazen polliki, ta goazen gelditu gabe. Polliki dijoana, urruti dijoa.

Guk ere, euskalzaleak, begira deza-gun aurrera, baña ez utzi lana aurrerako, gerorako. Biarko eguna, guk gaur egingo degunaren mendean dago.

Euskerak burua jasotzea, biotza

bizkortzea, nai degu? Asi gaitezen ba gaur bertan jaso erazten, bizkor erazten. Alduanak alduana egiten badu, gogoia beteko degu. Ez ordea epe txiki-rako indarrez bat-batean asi; polbora-indarrez eztegu deus egingo; ur tantoen amaipen gabeko indarra bear degu.

Ez aztu: biarko egunerontz begira jarri, ta lanean gaur asi. Polliki, polliki... baña beti.

GOIERRIARRA




1991

URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA
A A A O O L I 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	A A A O O L I 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28	A A A O O L I 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31
APIRILA	MAIATZA	EKAINA
A A A O O L I 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30	A A A O O L I 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	A A A O O L I 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30
UZTAILA	ABUZTUA	IRAILA
A A A O O L I 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	A A A O O L I 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	A A A O O L I 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29
URRIA	AZAROA	ABENDUA
A A A O O L I 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	A A A O O L I 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30	A A A O O L I 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29

Udaletxea	88 64 08
Ertzaintza	88 73 50
Anbulategia	88 87 55 / 88 26 32
Gurutze Gorria	27 22 22
D.Y.A.	46 46 22
Larrialdiak	88 09 67
Suhiltzaileak	88 13 62
Maizpide Euskaltegia	88 92 31
A.E.K. Euskaltegia	88 93 40
S. Prudentzio Ikastetxea	88 26 30
S. Benito Ikastola	88 08 00
Parrokia	88 02 28
Sarasola Autobusak	88 02 59
Renfe	88 08 53
Polikiroldegia	16 09 34



**LAZKAOKO
UDALA**



Osagilea:	88 13 55
Farmazia:	88 75 89
Udaletxea:	88 11 70
Eskolak:	88 77 04
Altzagako tfno. publikoa:	88 07 40
Urkiako lekutorioa:	80 60 45
Erretore-Etxea:	88 11 61
Ertzaintza (Beasaingo basea):	88 73 50
Suhiltzaileak (Ordiziko parkea):	88 13 62
Zumarragako Eritetxea:	72 16 14
Donostiako Erresidentzia:	45 38 00
Gurutze Gorria:	27 22 22
D.Y.A.:	46 46 22
Renfe:	88 13 62
Goierriko Euskol Eskola:	88 65 00
Segura Irratia:	80 11 41

ITSASONDOKO UDALA

Intereseko Telefonoak

Orokorrak

Zumarragako Eritetxea	721614
Donostiako Erresidentzia	453800
Gurutze Gorria	272222
DYA	464622
SOS Deiak	088
Eguraldi informazioa	094
Errepideen egoera	288888
Ertzaintza (Beasain)	887350
Suhiltzaileak (Ordizia)	881362
Renfe (Beasain)	880853
Sarasola Garraioak	880710
Pesa Garraioak	880668
Estelleta	452949
Itxaropenaren tfna	458005
HIES-SIDARI buruzko tfna	282666
Toxikologia inform	912620420
Alkoholiko Anonimoak	276618
Goierrri Lanbide Eskola	880062
Maizpide Euskaltegia	889231
Goiztiri AEK	889174 / 889340
Segura Irratia	801041 / 801341
Arlote Irratia	888093

Arama

Udaletxea	888953
Telefono publikoa	880739

Ataun

Anbulategia (S. Martin)	881025
Udaletxea	881011
Anbulategia (S. Gregorio)	881251

Beasain

Anbulategia	880759
Alkartasuna Lizeoa	887191
Hotel Urteaga	880850
Larrialdiak	880967
INB	880753
Loinazpe Ikastetxea	882644
Udaletxea	885900
Udal Euskaltegia	889094
Udaltzaingoa	881355
Zaharren Egoitza	884804
Taxiak	880367

Ezkio-Itxaso

Udaletxea	721303
Telefono publikoa (Ezkio)	720267
Telefono publikoa (Itxaso)	880315
Gasolindegia	721717

Gabiria

Udaletxea	880734
Telefono publikoa	881384

Gaintza

Udaletxea	889564
Tfno. publikoa	880274

Idiazabal

Anbulategia	801173
Udaletxea	801064
Eskola publikoak	801726

Ikaztegieta

Udaletxea	653329
-----------	--------

Itsasondo

Udaletxea	881170
Eskolak	887704
Medikuetea	881359

Lazkao

Udaletxea	886408
Anbulategia	882632
S. Prudentzio Ikastetxea	882630
S. Benito Ikastola	880800

Ligorreta

Udaletxea	806225
Eskolak	806014
Izarra ostata	806044
Taxia	806170

Mutiloa


Tfno. publikoa	801166
----------------	--------

Olaberria

Udaletxea	889193
Eskolak	881232
Castillo Hotela	882011
Tfno. publikoa	881111

Ordizia

Udaletxea	885850
Anbulategia	880967
Eskolak	882780
Kontsumitzaileen Bulegoa	881642
Kultur Etxea	881280
Gaztetxea	888092
Oianguren BIN	880862
Suhiltzaileak	881362
Udaltzaingoa	884005
Taxiak	881486
Zaharren Egoitza	888377



Ormaiztegi

Udaletxea	882660
Anbulategia	888432

Segura

Udaletxea	801006
Anbulategia	801919
Eskolak	801776
Igerilekuak	801775
Aingeru Zaind. Aterpetxea	801010
Hospital	801008
Segura Irratia	801041
Taxi	801170

Zaldibia

Udaletxea	880357
Anbulategia	880027
Eskolak	884521
Etxabe Autobusak	884105

Zegama

Udaletxea	801115
Anbulategia	801351
Eskolak	800042

Zerain

Udaletxea	801724
Medikua	801136
Telefono Publikoa	801183

Lana

--Emakume euskalduna behar da eskolako haur bat zaintzeko. Ordiziakoa balitz hobe. 886129 tfna.

--Goizez lan egingo nuke, Goierri ingurualdean. 812817, Izaskun.

--Neska batek goizez lan egingo luke. 883090 tfna.

--Maistra, filologia inglesan lizentziatua, EGAduna, euskara, ingelesa edo edozein ikasgai irakatsiko luke. Esperientzia eta seriotasuna. 887653.

--Interina bezala lan egiteko prest nago. 888742-885413

--Emakume bat pronto garbitasun edo etxeko lanetarako. 887328 tfna.

--Neska batek lan egingo luke jatetxe bateko sukaldean edo fregaderan laguntzeko. 888181 (Lurdes-gatik galde)

--Ikasle bat arratsaldean lan egiteko prest. 884722 Amaia.

--Neska euskaldun batek goizez etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. Tfna: 883328

--23 urtetako mutila eskaintzen da osalaritzako edo jendearekin harremanetan aritzeko. Esperientziaduna (Abstenerse comisionen). Tfna: 884697, eguerdi eta gauetz.

Salmentak

--Kotxexilla salgai (16.000 pzta.). Tfna: 887201.

--Ordenagailu konpatiblea salgai: Inves PC-x10. 512 k memoriaduna eta bi disketera 60.000 pztatan. 886182. Goizez.

--Sintetizadore digitala salgai (Yamaha DX75) egoera ezin hobean (urtebetekoa), 160.000 pezetatan, garraio maleta, Sustain pedala, ram kartutxoa, rom maleta, atrila eta parametro taulak oparitzen ditudalarik. Koldo: 653376.

--Sukaldeko formikazko armairuak salgai egoera onean. 889185 tfna.

--Txerri gazte bat saltzen da. Tfna.: 880096.

--Karrodena bat salgai: 889809.

--R-5 bat salgai (SS-AF): 888784.

Etxebizitzak

--Ileapaindegia alokatzen da Ataunen. Dei, 160576 edo 888456 telefonoetara.

--Buhardilla edo pisu jantzia behar dut errentan. 888671, bulego orduetan, Juan-txo edo Elenagatik galdez.

--Lagorretan, 90 m²ko etxebizitza salgai. Guadalupe 2, 7. Dei asteburuetan, 885863.

--Teilatupe edo atikoa salgai: Tfna: 888680-881798.

EKITALDIK

BEASAIN

Euskararen Transmisio-Kanpaina.

Euskal Herriko beste herri askotan bezalaxe, Beasainen, aurten ere Euskararen Transmisio-Kanpaina egingo da. Iaz gurasoen (amen) aldetik izandako erantzun onak bultzatu du Udaleko Euskara-Batzordea jarraipena ematera.

Aurtengo kanpainako materiala zabalitzen hasia dago honez gero, kartelak jarri. Kartelak, kalean, Ikastetxeetan eta etxe-atarietan jarri dira. Herritarrei eta etxetako Administrazioaleei, Urrian zehar errespetatzea eta ez kentzea eskatzen zaie. Gero, Ikastetxez Ikastetxe bilerak eta elkarrizketak egingo dira Irakasle eta Gurasoekin. Gurasoei aldeaz aurretik jakinaraziko zaie bilera noiz izango duten eta matrikulatzeko orriak banatuko zaizkie.

Bestalde, dagoeneko 50 guraso badira

izena eman dutenak.

Aurten, guraso euskaldunei dei berezia egiten zaie, beren seme-alabekin batera alfabetatzea daitezela. Zailtasunik gabe, patxaran, gauzarik errazena irakurtzeko eta idazteko prestatu daitezela. Ikasketak ez du bukaerarik, baina beren gaztaroan ikasterik izan ez zutena edota ahaztu dutena lasai-lasai ikastea besterik ez da izango eta horrek beren seme-alabei beren Euskarazko ikasketak askoz ere hobeto egiten lagunduko die.

Euskara Batzordea. Beasaingo Udala.

IGANDETAKO DANTZALDIK

Urriak, 27: Akelarre; *Azaroak, 10:* Almen; *17an:* Minxoriak; *24an:* Almen.

MENDIZALEAK

Ordizia *Urriak, 27;* Lizarrusti-Putxerri *Azaroak, 3;* Orrio-Donostia *Azaroak 10;* Otzaurte-Arantzazu *Azaroak 17a;* Arantzazu-Aloña-mendi.

Idiazabal: *Urriak 27:* Arrikutz koba, egun osorako; *Azaroak 1-2-3:* Orhi-Holzarte; *Azaroak: 14-15-16-17:* Erakusketak; Kanpoko mendiak; *Azaroak 17:* Amezketa-Irumugarrieta-Tuturre.

BEASAIN-ORDIZIAKO

GOARDIAKO FARMAZIAK

Azaroak 1: Azpilikueta; *2-3:* Cuesta; *4:* Jauregi; *5:* Laurnaga; *6:* Cuesta; *7:* Arriola; *8:* Urbizu; *9-10:* Laurnaga; *11:* Atorrasagasti; *12:* Azpilikueta; *13:* Jauregi; *14:* Laurnaga; *15:* Cuesta; *16-17:* Urbizu; *18:* Arriola; *19:* Urbizu; *20:* Atorrasagasti; *21:* Azpilikueta; *22:* Jauregi; *23-24:* Arriola; *25:* Laurnaga; *26:* Cuesta; *27:* Arriola; *28:* Urbizu; *29:* Atorrasagasti; *30-1:* Azpilikueta.



SUSKRIBITU ZAITEZ!

**GAUR EDO BIHARKO
KOLABORATZAILEEI:
GURE TELEFONOA, 889612.**

**IRAKURRI
ETA ZABALTZAZU
GOIERRRITARRA**

Herrietatik Goierri. Non zer berri.

Orokorrak

Zerraila

sexu informazio eta orientaziorako zerbitzu munizipal bat da, Goierriko zortzi Udalen artean sortua: Ordizia, Beasain, Lazkao, Altzaga, Ataun, Olaberria, Zaldibia eta Itsasondo, Gipuzkoako Foru Aldundiaren lankide-tzarekin. Dohaineko zerbitzu bat da eta bere aktibitateak honakoak dira:

- ❖ Udal bakoitzean indibidual mailako asesoria eta informazio bulegoa eta telefonoa.
- ❖ Famili Plangintzarako Zentruetan batera, sexu terapia zerbitzu bat sortu da, nahiz norbanakoa zein taldekoa.
- ❖ Sexu heziketa mailako monitoren formazioa, baita interbentzio zuzenak ere: ikasleekin, gurasoekin, jubilatuekin, e.a.
- ❖ Lana egingo da ere gazte talde organizatuekin edota bildu nahi dutenekin ere.
- ❖ Beste zenbait ekintza populazio orokorrerako, hitzaldiak, heziketarako materiala sortzea, sexu jarrerrei buruzko ikerketa, e.a.

Ordutegia:

Itsasondo: Astelehena, 3etatik 5etara, Udaletxea. Tfna.: 881170. --**Olaberria:** Astelehena 5etatik 7etara, 1. ordua, Udaletxea. Tfna.: 889193/881434. 2. ordua, Asoc. Pobl. Jose M. Aristrain, z/g: 880907. --**Ataun:** Astearte, 3etatik 5etara, Udaletxea. Tfna.: 881011. --**Zaldibia:** Astearte, 5etatik 7etara, Kultur Etxea. Tfna.: 888090. --**Lazkao:** Asteazkena, 3etatik 5etara, Udaletxean. Tfna.: 886408/886412. --**Beasain:** Osteguna, 3etatik 5etara, Kultur Etxea. Tfna.: 885904. --**Ordizia eta Altzaga:** Ostirala, 3etatik 6etara, Osakidetza egoitza. Tfna.: 881165.

Pediatrica Kontsulta

Beasaingo Osasun Zentruan, joandako abuztua ezkerotik, Pediatrica kontsulta bat ireki da. Kontsulta horretara Goierriko herri gehinetako haurrei atendituko zaie, 1978ko urtarrikalitik aurrera jaio-takoak izango dute atentzio hori jasotzeko eskubidea.

Kontsulta horretara joan ahal izateko "Cita Previa" deituriko sistema erabiliko

da. Horretarako 880759-888650 eta 888654 telefonoetara dei daiteke eguna eta ordua eskatzeko. Goizeko 8etatik arratsaldeko 17etara dago irekirik esandako zentrua.

Pediatrica kontsulta honetan prebentzioa, hazte kontrola eta gaisotasunen atentzioa izango dira, eta nahi izanez gero, orain arte bezala jarraitu daiteke herri bakoitzean dauden mediku eta praktikantea-rengana jotzen.

III. "Gerriko" Idazlan-Sariketa

- 1.- Lehiaketan edozeinek har dezake parte.
- 2.- Gaia: Goierriko dagokion edozein Zientzia alorreko Ikerketa-lana. *Oharra:* A. Herri mailako nahiz eskualde mailakoa izan liteke. B. Norberaren esku geratuko da ikuspegi historikoa, soziologikoa, inmigrazioa, industria, ekonomia... lantzea. D. Edozein garaitako lanak onartuko dira, baina garai jakin batzuen barruan mugatuak egotea gomendatzen da.
- 3.- Lehiaketarako euskarazko, eta ez euskarara itzultitako, lan orijinalak onartuko dira.
- 4.- Lanen luzera, gutxienez 80 Dina 4, gehienez 150ekoa, idazmakina eta biko tarteaz izango da. Orijinala eta hiru kopia aurkeztuko dira. (Ahal duenak ordenarean egin dezala).
- 5.- Idazlan guztiek sinaduratzat lema bat besterik ez dute izango. Horri gehituko zaio kartazal bat, zeinaren kanpoko aldean idazlanaren izenburua eta lema idatziko diren, eta gainera bere barnean berriok dituen idatziak: lema, lema-egilearen izen-deiturak, helbidea eta telefonoa (dena makinaz).
- 6.- Lanak helbide honetara helaraziko dira, 1992ko Apirilaren 1.a baino lehen: Goierriko Euskal Eskola. III. "Gerriko" Idazlan-Sariketa. Ellosegi, 16-1.a ezkerrean. 20210 Lazkao (Gipuzkoa).
- 7.- Epaimahaia Goierriko Euskal eskolako Batzordeak eta Maizpide Euskaltegiak izendatuko dute. Honen erabakia atzera-eraz izango da.
- 8.- Mahaikoek puntuok hartuko dituzte kontutan: Edukaren zientifikotasuna (dokumentatua izatea); agertzen diren datu guztiak eta bakoitza nondik jasoa

izan den argi eta garbi azaldu beharko da. Lan bakoitza dagokion materiale grafiko eta bibliografiaren hornitua izatea. Euskararen erabilaren zuzentasun eta egokitasuna.

9.- Behin-betiko erabakia 1992ko Maiatzaren azken ostiralean jakin eraziko da.

10.- Sariak Ekaineko 2. ostiralean eman-go dira; epaimahaiak hala erabakiz gero, saria(k) eman gabe gera daitezke/daitezkelarik.

11.- Goierriko Euskal Eskola eta Maizpide Euskaltegiak saritutako idazlanak argitaratzeko eskubidea (beste ordainketarik gabe) izango dute; beraiek bakoitza izan ere, epaia ematek bi urteren burura arte.

12.- Sariak: Lehena: 300.000 pta. Bigarrena: 200.000. Hirugarrena: 100.000 pta.

13.- Lehiaketa honetan parte hartzeak, oinarri hauek eta aipatu epaimahaiaren erabakia onartzea dakar.

* *Oharra:* Edozein argibide behar izanez gero dei 160282 telefonora.

Herrietatik Goierri

Udal Administrazio, Elkarrekin eta Ekintza antolatzaileei: Honen bidez, zera eskatzen dizuegu: Udaletxe eta Elkarrekin horietatik atera behar duten edonolako ohar guztiak, jendeen jakinean jartzea komeni diren guztiak (ez kulturari dagozkionak bakarrik) bidali ezazkiguzula GOIERRITARRAREN "Agenda", "Herrietatik Goierri" eta beste sailetarako.

Ohar horiei gustora egingo genieke leku aldizkari honetan (hilabetekaria da oraindik), ahalik eta azkarren bidaliko baze-nizkiguzue. Hau da, gure aldizkaria hilabete bakoitzaren lehen egunetan ateratzeko asmoa dugunez, hilabete horretan ihardunean egongo diren ekintza eta abarren berri behar dugu. Hamar eguneko antelazioarekin jaso beharko genituzke.

GOIERRITARRA, 889612, 124 p.k. Ordizia.



“Klaudio Otaegiri omenaldi” dela eta

Aldizkari horren 15. zenbakian (1991ko Maiatza-Ekaina) agertutako artikulu bati zenbait argitasun egin nahiean idazten dugu. GOIERRITARRAren hurrengo alean gure idazki hau argitaratzea eskatzen dugu bide batez, iritzi baten aurrean kontrakoa ere agertzea zilegi iruditzen zaigunez.

Hain zuzen ere, aipatutako GOIERRITARRAren 15. zenbakiaren 25. orrialdean, “Izen eta Izan” deituriko sailean, “Klaudio Otaegiri omenaldi” izenburupean aurkeztutako artikulutaz ari gatzazkizue. Ez goaz hemen han idatzitakoak berriz ere azaltzera, laburtasunaren alde apustu eginez. Hala ere, edonork jo dezake artikulu horretara ondoren esandakoa erekin kontrajarri asmoz.

Argitu nahi duguna zera da:

✓ 1991ko Apirilak 14ean Zegamako herriak Klaudio Otaegiri (1836-1890) eskeinitako omenaldia Kultur Etxe honek bultzatu, landu eta antolatua egon zen. Udalari gure asmo hau aurkeztu genion bere diru laguntza eta babesa eman besterik ez zigun egin. Beraz, omenaldi asmoak ez ziren Udaletxean sortu.

✓ Zegamako Kultur Etxean Batzorde bat dago, etxearen erabilpena bera eta zenbait ekintza antolatu eta egiaztatzeko. Batzorde honek, Udalak emandako urteko aurrekontu bat erabiliz, eraginkortasun osoa du bere erabakiak aurrera eramateko Udalaren oniritzia aurrez eskatu gabe ere. Hala ere, zenbait ekintzetarako (ekipamendua eta ari garen omenaldi honetarako adibidez) laguntza zuzena eskatzen da Udaletxera gastuak handiak direla eta. Udalak proposamena aztertu ondoren, bere laguntza eman edo ukatzen du. Kultur Etxeko Batzordea, kulturaren alde lan egin nahi duen zegamar guzientza zabalik dago.

✓ Klaudio Otaegi euskalzale bikaina izan zela ezin uka daiteke. Poeta lanean zein maila zuen esatera ez gara ausartzen, ez bait gara horrelakoetan maisu eta jakintsu. Dena den, omenaldi horretan Euskaltzaindiak Patri Urkizu idazleari enkargatutako “Klaudio Otaegi olerkaria” liburuaren aurkezpena egin zen. Jakingo al dute gure euskaltzainek zertan ari diren, “olerkari eskas” baten lanari argitaratzeko merezimenduak ikustera-koan? Guk baietz pentsatu genuen ekin-

tza hau gorpuzterakoan eta gaur egun oraindik horretan gaude.

✓ GOIERRITARRAko artikulu horren J.O. idazle ezezagunari gusto handiz eskatuko genioke bere iritzia hurrengo batean horrelako “hankasartzeak” egin ez ditzagun. Zoritxarrez, ez dakigu nor den, non bizi den edo berarekin harremanetan nola jarri gaitezkeen. J.O., zure esanetara gaude!

Bukatzeko, honekin batera bidaltzen dizuegu lehen aipatutako “Klaudio Otaegi Olerkaria” liburua, zuek egokien jotzen duzuen olerkiren bat GOIERRITARRA aldizkarian ager dezazuen irakurleek bere ondorioak beraiek ateratzatzen.

Besterik gabe, ekintza honi emandako tratamendu eta oihartzun bereziengatik gure eskerrak emanez agurtzen gara.

Zegamako Kultur Etxeko Batzordea

Ziririk ez!

Ez inori kasurik egin! Ez hildakoei, ez “bizirik” dirautenei, ezta lerrotxo hauei ere! Norberarena ez den guztia hila bait da. Honegatik edo horregatik ez al dugu hori egiten? Ez gara geu, dena delakoak baizik. Beraz, hilak “bizi” itxuran. Hitz hauek norbait helduko balute, akabu ere, jakina. Gora zalanta!

(“Txilibitu hau” --Pello Sarriegi--
“hor ingurukoa duzue” --Goyerrikue alegiye, beasaindarra, dioskunez eta ia-da elkar ezagutu dugunez-- “eta batzutan horrela jartzen da. Animoak eta aupadak!”)

(...)

Zer da bada kuadrila!

Zuria ez omen dago modan eta ni modak mugitzen nauenez, etxean diren zurtasun guztiak kaka nahasten hasia naiz. Pape-rari ere bere txanda ailegatu zaio eta lanak emango dizkit, baina ostianak niri jo?! Hala bazaudete zaudete...

Har ezazue hemendixe zuen kolore zu-riak beztuko dituen eguzki jolerik beroe-na eta kaskoa berotzean ea denon onerako --bestela ez-- adar joka hasten garen, be-rezkoa baina.

Eutsi Bizitzari eta berak eutsiko zai-tuzte, hori bait du berezko zeregina. Hu-rrengorarte lagunok eta, kasorik ez!, eto-rr!

Pello Sarriegi. Barrika (Bizkaia)

“Caca de Vaca”

Oporretara joateko bideak irekitzen ezeak eta igarrak pasa ondoren, joaterik izan ez duen baten ikuspegi erretxinetik dator notizia. Zerua ximaurtu zaigula, alegia.

Arnasa hartzeko betarik gabe urte gu-zian lan egin ondoren, Loiolako San Ina-zioaren jaiotzaren 500. urtea betetzen zen egunean, Errege-erregin eta apezpiku ar-teko funtzio telebisatuak familiarteko ba-ten osasuna bere onetik atera eta hanka bat etxe atarian eta bestea atobus paradan zuenak San Inazioaren Obraren tamaina baino handiagoko saminaz odolezko lo-karriek behartuta oporrak sakrifikatu zi-tuen.

Abuztuko egunak eta bero sarkorra, nahigabea, lurraren ur egarria eta azal beltzutu nahia, herrialde exotikoetako postalak “herria zaintzen” gelditu diren laguneri.

Casablanca, 1991-08-9

Iritsi berriak gaitun Casablancara, sar-gori dagoen arren merezi du pena. Bo-gart-ek protagonizaturiko pelikularen eszenarioan gaitun. Oilo ipurdia bezala zeukanat azala. Hemendik Atlas-Sahara ruta jarraitu behar diau, kaaaleeean ibi-li, basamortuan eguzkiaren irteera iku-si... etabar. Bueno, bihotzik ez. Pa handi bat ezpainenat.

Eta halako batean, ortzia marroi ko-lorez jantzi da. Giroan silo usain sarkorra zabaldu da. Hodei marroi eta beltz pixu-pixuak ditugu eguzkipean, usuriarekin batean kakapiloak erortzen hasi direnean. Eta ximaurra zabaldu da teilatueta, ka-naloiak eta kaleetako ubideak gainezka egin arte. E.T.B.-ko kamarak beraien es-tudioetatik desplazatu dira berriaren ima-ginak grabatzera eta lekukoen iritziak jasotzera. Alkateak katastrofearen au-rrean zein neurri hartu dekretatu aurretik Udalbatza deitu du. Kakazaharra nagusi-tu da herrian. Kakatan plast.

Oporrak sakrifikatu baditut ere iragarri ezineko ezohizko fenomeno atmosferiko baten lekuko historikoa izatea zor diot Gipuzkoako Patroi eta Jesuiten Ordena-ren Fundatzaile zenaren grazi mingotsari.

Mirentxu Etxezarreta (Lazkao)

Urbasan

Udako igandeetan (azkeneko igandea bezalako giroa denean bereziki) milaka pertsona joan ohi dira Urbasara. Horietako asko euskaldunak. Baina hona non, Nafarroako Gobernuak, informazioa, inkestak eta beste horrelako erdara hutsean ematen dizkigun bere "Vascuencearen Legea" ere bete gabe.

Zer esanik ez horretarako jartzen di-tuen ordezkarien mintzamina, etab. Gainera, euskal toponimoekin betetako leku horren mapa ere erdaraz errotulaturatuta ageri da, euskal izen guzti horiek idazkera arrotza dute eta tarteka izen jatorra lardaskaturatuta, hala nola, Zumbel, Zumbeltzen orde, etab.

Inkestan, berriz, euskalduna den ala ez ez da galdetzen eta Erkidego Autonomoen bereizketa "garbiak" egiteko ahalgina nabarmentzen da.

Beste behin, hara igandeetan igotzen diren milaka euskaldunak, beren lurtean arrotz eta espainiera funtzionalaren menpe erdal funtzionamendua eraginez sentitu eta bizitzeko ahalgina ari da gauzatzen kasu honetan Nafarroako Gobernua.

Andoni Sarriegi (91-VIII-28)

Ur lohitua iturrian

Irailaren 8ko asteburua eta astelehena ez genituen oso gozoak izan iturriko uretan Goierriko alderdi batzutan. Aiaiturrieta Amankomunitateko ura etxeko iturrian hartzen dugunoi (Ataun, Lazkao eta Beasain nahiz Ordiziako leku batzuekooi), maiz suertatzen zaigu ur lohitua iturrian, baina oraingoa gainera zerbait gehiago ere izan dela dirudi.

Aiaiturrieta Amankomunitateak (1955 inguruan sortua), Ataungo Aiako Aiaiturrietako iturburuan hartzen ditu urak eta lehen aipatutako herrietara banatzen. Lareoko urtegia (2,35 Hm3) egin zenez geroztik (1989), urtegiako urak ere han biltzen dira eta handik banatzen dira herri horietara (Ordiziak eta Beasainek, beren kontsumoaren erdia baino gutxiago hornitzen dute hortik eta Lazkaok eta Ataunek dena).

Lareoko urtegiaren normalean ura garbi samarra egon arren, proiektua egikaritzean Aiaiturrietaraino tutueria ez jais-teagatik, Lareotik Ubediko leizera jarri zen tutua (beti merkealde Diputazioko teknikari eta politikariak) eta urak Ubediko leizean sartzen dira, gero gehienak edo irten nahi dutenak, Aiaiturrietan ir-teteko, baina euri jasak direnean, Lareo-koak ezezik, inguruko basoetako hondar-rreria guztia ere han sartzen da eta ondo-rioz, ur erre lohituak sartzen dira Aiaiturrietako tutuetan.

Hori ez da ordea dena. Lareoko urtegia egitean, Diputazioko Teknikarien eritziz, utegi horretako urik gehienak, Agauntza

errekari emateko pentsatu ziren eta gu-txienak edateko uretarako. Arriarango urtegia egin arte, edateko izan bide du lehentasun ia osoa (Eztanda/Oria erre-ka-ibaientzat ia deusik utzi gabe) eta La-reok berriz Agauntzarentzat.

Planteamendu absoluto horiekin, Aiaiturrietatik beherako sarean ez da araztegiarik (depuradorerik) jarri eta ura kloro- tratamendu huts-hutsarekin jasotzen dugu etxeko iturrietan edateko dena-ren izenarekin. Herri horiek apur bat eza-gututa eta banaketaren zentzu izpirik iza-nez gero, askoz ere logiko eta burutsua-goia zatekeen noski, bai Lareok eta bai Arriaranek, behar zen heinean edateko ura banatuta ematea (tutueria egonda arrazoi gehiagoz) eta erreka nahiz ibaie-tarako ere biek proportzio batean ematea. Gainera, edozein larrialditan, batetik zein bestetik emateko aukera ezin bestekoa da eta horrelakoetan ere pentsatu beharra dago. Bestalde, Agauntzak ura behar ba-du, Eztandak eta Oriak ere beharko dutela esan liteke. Ala, Eztandak eta Oriak ez dute ur beharrik?

Baina ez, erizpide absolutu metatzai-leen bidetik, araztegia Arriaranen jarriko omen da erateko urarentzat (jarritakoan ikusiko dugu) eta Ataunen ez dago beha-rrik oraingoz (gero agian Ataunako txiki bat). Erizpide anker honi esker, urtea joan eta urtea etorri, ur zikin lohitsuak dugu iturrian zaparrada guztien ondoren, bere harea ugari eta guzti eta hori edateko uraren prezioan saltzen zaigu Diputazio T.G.ko Teknikariei, bertako orain arteko

Buruzagi Politikoei eta herrietako gehiengo politiko argi hauei esker.

Oraingoa gainera areagotu egin da arazoa. Hasieran aipatutako asteburu horretan, lohia ezezik, burdinkia edo her-doila ekarri du urak eta lehen unean behintzat inork ere ez zekien zergatik. Agian Ubediko leizebarruko lubiziren bat, edo auskalo zer izan den. Analisiak eta gainerakoak gora eta behera eta La-reotik urik ezin erabili behar edatekoaren prezioa ordainduta. Gainera, analisiak, emaitzak eta erabaki nagusiak beti Do-nostian egin behar dira.

Garaia da noski, proiektuak egitean, bertan sartu beharreko elementu eta ins-talazio guztiak behar bezela sartzeko eta batzu-batzuren merkekeria eta utzikeriari esker hirugarren munduko ur-kalitate arazoekin ibili gabe, ur-hornikuntza guz-tietan, Araztegiak jartzeko eta ura iragaz-teko, nola Ataunen (orain) hala Arriara-nen (urtegia egiten denean) eta Donostian bizi diren teknikari batzuk hala ez eritzi arren, edateko ura, edateko modukoa, ohizkotasunez eta normaltasunez zerbi-tzeko. Ala, guk beti zerrikeriaren menpe bizi behar dugu? Non dira lekuan lekuko herri-zerbitzuaren erantzukizuna eta agintarien erabakiguneko zorrotzasun, ardura eta duintasuna? Non da Teknika-rien profesionaltasun zorrotza?

Andoni Sarriegi Eskisabel.
Itzultzailea

Irakurri dugu...



Idiazabalgo "Beraxa" zenari

Istripuz hil da Administrazioa eta Euskara esparru horretan ezagunena eta maiteenetakoa zen langilea eta pertsonaia, Jose Inazio Berasategi. Ez nuen nik tratatu pertsonal gehiegirik izan berarekin, baina izan nuen guztietan maitatua sentitzen nintzen. Irriparra eta galdera berdina beti: "Hi, zergatik ez dituk nonbait argitaratzen dozena folio hura?", "Hi, argitarata itzak beste folio haiek!". Ez zen asetebe izango ez neuzkala, galdetu nituela, esan niola eta hala beharko zuela. Berak bazekiela zeini eman zizkion eta eskuratu zizkidala, merezi zutela, oso politak zirela eta. Foliorik gabe, eta "Beraxa"rik gabe nago une honetan. Agian berari egindako omenaldirik hobereña inoiz ez aurkitzea izango da, hartara bion arteko eta ez beste inoren arteko kontua izango da folioena, benetako lagunen artean gertatu ohi den bezala. Zer axola zaie guztiei, hiri eta neri hainbeste axola zitzaiguna? Nik ere maite hindudan!

Ramon Etxezarretak, joandako Uztailen

Soldaduzka Euskal Herrian

Euskaldunok, beste alderdi askotatik begiratuta bezala, Frantziako eta Espainiako soldaduzkak dituen gora-beheretatik badugu historian zehar eta sentimendu aldetik ere berezitasunik.

(...)3. Argentinan euskal lanetan aritu ziren hiru gizonen artean (Kindin de Muxika, Jose Ramon Zubillaga eta Antonio Arza), Kindin Idiazabalgo "Muxikarena"n 1887an jaio eta Argentinako Mar de Ajonen 1974an hil zena, 1906an heldu zen Argentinara, beste asko bezala, soldaduzkatik ihesi. Urte honetako maiztzean egin zen Algeciras-eko Konferentzia deitzen diotena, eta harrez gero bigarren gerra karlista (1876) amaitu ondoren ezarri zion Espainiak Euskal Herriari urteroko soldaduzkako kintetatik zati handiena Afrikara bidaltzeko zigorra; eta Kindinek esaten zuen bezala, bere aitak "nahiago izan zuen bere semea Ameriketara joan zedin mairuak hiltzera baino.

(...) Gaurko intsumisoak! Andoainen barkarik ba omen dira berrogei! Ez naiz batiere harritu orain nire herriko lagun baten semea, Imanol Huizi, paperetan ikusi dudanean! Ni bandera juratzen jarri ninduten hartan nire barrurako zer esan nuen igarri izan bazidaten, neu ere sartuko ninduten aise gartzelan!

Martin Ugalde idazleak
"Egunkarian", abuztuan.

Drogaren aurkako gerra


Droga eta gaitz horrek jota dauden guztien aurkako gerra gero eta gartsuago dabil ingurumari hauetan. Eta, aidanaz, talde politiko guztiak bat datozen arren trafikatzailer handiak direla etsai nagusiak esateko orduan, gero, egintzetan, gerra honetan nornahi da etsai eta nornahi agertzen dira arerioak.

Eta egiatan etsaia ote da bere burua de-segiten ari den drogazaletu axolagabea, bere dosia dohainik ateratzeko beste pare bat saltzen dabilena? Eta drogak hartu eta banaketa- katearen azken mailako salmenta egiten dutenen kontrako errepre-sioa ontzat ematen bada... zergatik ez gogor jipoitu, baita ere, alkoholikoak, tabakozaletu porrokatuak, zigarro- saltzaileak edo ardandegi-jabeak?

Historiak argi erakusten du osasuna eta bizimodu sana garaile atera daitezen modurik aproposena ez dela kriminalizatzeta --debekuak ezarri eta polizi indarrez bere arazi nahi izatea--. Gogora, bestela, 1920ko hamarkadan Estatu Batuetan alkoholaren debekuak zer "lortu" zuen: alkoholaren salerosketa ilegala izugarri zabaldu zen eta ordurarte bestelako ihardu-netan ari ziren gangsterrak hari ekin zioten... Pelikuletan ikusten ahal da eta, gainera, egia hutsa da. (...) Har ditzagun, beraz, haintzat zergatiak eta, ondorioei dagokienez, saia gaitezen arreta gehiagoz drogomenpekotasunen aurrikuspe-nean eta projektu terapeutikoen garape-nean. Horrela, eta ez beste inola, arituko bait gara arazoari aurre ematen eta ez zorriak kainoikazoka akabatzen.

Goierriko EMK-LKiren agiria.

ZURE IRAGARKIA HEMENTXE
BALEGO ZEU IZANGO ZINATEKE
DUEN ERAGINA IKUSTEN



Non, nork, nola, noiz

..Joxemiel Iztueta Lazkao-Txiki bertsolaria omendu zuen Beasaingo herriak Iraila-erdialdean. Euskal Herriko taberna eta plazetan hainbeste malko eta algara sortu dituen bertsolari goierriarrari bere esfortzua eskertu nahi izan zitzaion bere 65. urteurrenean. Elkarrizketak han eta hemen, goien mantentzen da Lazkao-Txiki, "erretiro txarrekoa" izaki, baina ba omen du asmorik gazteei leku egiteko. Esan ziguna, "egin zidatekean omenaldi eta eskertzen diat; hura pasa huen eta ondo egon huen".

P
a
t
x
i

P
l
a
z
a
o
l
a



..Patxi Plazaola, legorretar beasainerratua eta Lazkaoko S. Benito Ikastolan irakasle zena (urte askotan Beasaingo Lizeoan zuzendari izana bestalde) Gipuzkoako Kultura eta Turismo Deputatu izendatu du Eusko Jaurlaritzak. Fisikaseta lizentziatua da.

..Garbiñe Mendizabal, Ordiziako Udaleko itzultzaile izana oraintsu arte, Zaldibiako Zaldi-Ibia kandidatearen

eskutik kulturako zinegotzi atera eta Gipuzkoako Foru Diputazioko Euskararen Normalizaziorako Zuzendaritzara joana zaigu. Ea Goierriara ezer onik dakarten bien-ala-biek!

..Lazkoan lazkaotarrak saiatu ziren Komunismo gailurrarekin. Andeatako Huascaran mendiaren gailurra zapaldu zuen uda honetan Idiazabalgo espedizioak. Nahiz eta gorabehera batzu izan (istripu baten ondorioz zauriturik suertatu da Willi idiazabalarra), gure jendeak badakiela mendirik igotzen.

..Indurainen txirrindulariaren neskalaguna Lazkaokoa dugu. Marisa izena du eta Iruñeko Unibertsital Kliniketan lan egiten du. Nahiz eta biak batera argazkian hartzerik inork ahal izan ez, Parisen izan zen haren garaipena ospatzera joanda. Neska apala.

..Goiztiri AEK Euskaltegia duela bost urte sortu zen Goierriin. Gaur egun, denetara hamar irakasle egiten dute lan euskara irakasten eta orainarte ez dute inongo laguntzarik jaso Udaletxeetako Kultura eta Euskara Batzordeetatik, nahiz eta urte osoan zehar hainbat kultur ekintza burutu. Azkenean, ordea, Ordizian zedituak izan zitzaizkien bezala, gelaren batzu utzi dizkie Beasaingo Udalak.

..Patxi Zubizarreta ordiziar idazle eta GOIERRITARRAren kolaboratzaileak bere bigarren nobela argitaratu du. "Ga-



P
a
t
x
i

Z
u
b
i
z
a
r
r
e
t
a

brielle" izenburuarekin aterea izan beharko da aldizkari honek argia ikustetarako, "Erein" argitaletxearen eskutik. Teologo baten eta prostituta baten arteko hizketaldiak isladatuko dira bertan. Gure inguruko antzeko hiri batean (Marapoli) garatzen bada trama, ez da bere errua izan.

..Rufino Iraola Garmendia 80. urtearen inguruan Zaldibiako "D.V."ko kronista sartu zen, euskaraz ere egiteko asmotan. Batzutan fin aritu ondoren, geroz eta gehiago omen dira erdaraz idazten dituenak. Izan ere, zaldibitarrek erdaraz hobeto jakingo baitute.

..Anway Corporation-ek "askatasuna saltzen" omen digu. Bitartekorik gabeko "salbentak" diru asko uzten dutela eta goierritar asko eta asko dira horra apuntatu eta aberastu asmoz dabilzenak. Prentsarekin gora-beherak omen dituzte, sekta-usaik ere hartzen zaio, bultzatzen duten bizi-modu eredu... Auskalo zer atera litekeen hortik!

Zer gertatzen da...?

...Gure ondare kulturalarekin?

Itsasondoko baserri jakin batean, Iraola-harresin, liburu zaharrak bazirela aditzera eman zitzaidan orain dela urte pare bat. Joan naiz eta nola-hala, mesfidantzaz, baina permisua eman ziguten arramario batean arakatzeko. Apaizgai bat egona zen han eta hantxe ziren Sto. Tomasen "Summa Teologica", "Ongi bizitzeko eta ondo hiltzeko" (edo horrelakoren bat, apuntatu nituen baina papela galdu), bi eta hiru mendeko euskal erlijio liburu zaharrak. Hantxe, aldare txiki eta koloreztatu izana baten gainean, apaizgaiaren paperak pipiak jota edo usteldurik geratzeko arriskuan. Are gehiago: eduki omen zuten anatomia liburu bat euskaraz, bere irudi eder eta guzi. Auskalo non den orain! Baina baserriarrak zioen bezala, bera jaiotakoan han zeuden eta bera hildakoan ere han geratuko ziren. Ilobaren batek eraman zuen libururen bat bestalde.

Nire galdera da, ea zer egiten duen Euskaltzaindiak, zer egiten dagokionak, handik ezer ateratzerik utziko ez balute beren jabeek, besterik ez bada benik, fotokopiadora batekin joan eta kopiagarriak kopiatzeko. Eta honakoa ez da izango kasu bakarra.

Bestalde, "Zegamako Kontuk", "Ormaiztegiko Bide Berriak", "Kontu Zaharrak Ataunen", "Zegamako Despektiboak" eta gisako lan dexente daude buruturik, bertako herritarrek eginak. Lotan, Aldizkari honetan entrega bat edo beste emango ez bagenu. Kultur Etxe eta udaletxeetako biztanleak zerbait pentsatzen hasi beharko dira.

J.M.A.

merka P21 dendak



**CHASYR
SEGUROS**
ASEGURU AGENTZIA
CARLOS RODRIGUEZ
CARDESIN

Goierri, 12- Tfnoa: 16 14 15
P-21 Komertzialgunea, 2. oina **ORDIZIA**



**TXALUPA
ERRETEGIA**

Arrain, marisko eta okelak parrilan
P-21 ZENTRU KOMERTZIALA Tfnoa: 88 84 07 **ORDIZIA**



MAIKA

Jostundegia eta oihalak

P-21 ZENTRU KOMERTZIALA
Tfnoa: 88 91 59 - **ORDIZIA**

Bidai luzeetarako busak
eta lineako zerbitzuak

**SARASOLA
AUTOBUSAK, S.L.**

Elosegi, 4
Tfnoa: 88 02 59 **LAZKAO**

IBAÑEZ

- ✓ Kafetegia
- ✓ Izozkitegia
- ✓ Gozotegia



**P - 21
Kafetegia**

- Sandwitx eta gosari apartak

Goierri Kalea, 21.
Zentru Komertziala.

ORDIZIA

**Kirol jantzieta
espezialistak**



Domingo Unanue Enparantza 5
Telf: 88 85 18 **20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)**



JATETXEA

885255

DONOSTIA

ALTZAGA

Ilizondo Ordizia

GASTEIZ

- * Karta Zerbitzua
- * Lan menuak

**RUBIORENA
JATETXEA**

Zaldizurreta, 7 Telf.: 88 57 60
20200 BEASAIN



**SEGURO TALDEA
ZURICH-VITA-HISPANIA**

GURUTZ BARANDIARAN IRASTORZA

ESTEBAN LASA, 7-1º Tfnoa: 88 88 92
20200 Beasain (Gipuzkoa) Faxa: 88 88 92

SEGURAKO AINGERU SANTUAREN ATERPEAN,

Ume-jende abandonatua

Orain dela dexente pedagogia-ikasle batzuk umeteria abandonatuari buruz egindako lan bateren bidez Segurako Babestoki horren berri izan eta asteazken batez joan gara Segurara. Ez, ordea, Ordiziako feritik bueltako autobusean, etxekoandre erostunez lepo joango bait zen. Eguraldi txarra balitz, hostasun inpresioa jasoko genuen, baina eguraldi ona zenez geroz eta sarrera bero-beroa izan genuenez zuriz jantzitako bertako zuzendari, administratzaile eta hezitzaile den Arantxa Gorritxuren partetik, bada, gauzak oso bestela ikusi genituen.

Aurrera egiteko esperantzan

Udako oporren aurretik zitzu ginen, bertako zuzendari den Arantxa Gorritxurekin. Kale egin zigun, halabeharrez: Tolosako Juzkadura deitu bait zuten. Azken kurtsoa errepidean eman du praktikamente Gorritxu Andreak. Bergara, Donostia,... epaitegi gehienak pasa ditu, tutore gisa adingabeko umeekin, deklarazioak egiterakoan. Gobernu zibila, komisaldegia, sikologo eta mediku despatxuak. Egunero korrika ibili arren, siesta ordua lasaixeagoa dute. Gainontzean ume-jende honekin daude egun osoz.

A zer flaxa!: atarian moja euskaldun bat, bere abitoekin, segan. Hark ez zuela argazkirik nahi! Lastima!

Sartu gara Aterpean eta segituan deskusatu eta momentu batean bakarrik uzten nau. Umeei merienda jartzera doa. Beste ume batzu jolasean ari dira pasiloan.

GOIERRITARRA.- Hona datozen umeetatik gutxi izango dira euskaldunak. Zein da beren perfila?

ARANTXA GORRITXU.-- Beasaingo kolejoan B erduan sartzen ditugu, egokiena delakoan. Gehienak nahiko erreazioak dira euskararekiko. Gramatikari eta dituzten kezketan eta geuk laguntzen diegu, arituak baikara. Euskaldunak lau genituen aurrekoan, Billabonakoak. Orain donostiar bat geratzen zaigu. Gehienak Donostialdekoak dira, Eibar, Bergarakoren bat eta gainontzekoak Erreterria, Oiartzun, Andoingoak.

G.-- Altza eta halako auzoetakoak sarriago, ezta?

A.G.-- Gehienak emigranteen umeak dira, kultur maila bajuko familietakoak. Gurasoak hilik, banaturik edota psikiatria tratamendupean dituzte. Giro eta elikadura egokirik ez dute, guraso-seme-alaben arteko harremanik ez da eta praktikamente utzirik daude. Hona etorri izan dira aurrera ateratzeko esperantzan. Ikusten



ari garena da lehenago hemendik pasatako ume batzuen umeak datozela. Erraza da igartzen. Esplikaziorik badu: famili-girorik izan ez duen umeak ezin diezaioke bereei giro on bat eman. Guk asko lan eginagatik hemen, giro hori ezin diezaiekegu eman, jarritako pisu batean emango ez dieteri bezala, aita-amen maitasunik ez baitute.

Arantxak lau urte daramatza Segurako Aterpetxearen zuzendaritzan. Lehenagoko kontuez ez daki gehiegi. Oraingoez, oraingoez: familia "normaletan" trazendentzi gehiegi gabeko istilutxoak izaten dira. Dioenez, "Holako umeak ez dira errudunak, beren gurasoak baizik, tratatu txarretan, "a banquetazo limpio" dabil-



tzenak. Ume oso normalak dira, prolema beren familia da, giro txartuan hezi dira. Ikusarazten diegu arazo hori daukatela, hor bizi behar dutela eta ez dagoela gure esku gauzak aldatzea”.

Bitartean, hemen oso pozik daude. Diputazioan esaten didate: “Ez dakigu zer ematen diezuen Seguran. Inork ez du al-degin nahi”. Guretzako oso ona da hori, umeak kontentu egoteak irudi bat ematen du kanpora begira. Baina niri min egiten dit umeak beren gurasoekin ez joatea erabakitzen dutenean”.

Diputazioak ekipo bat jarri du lanean, psikologo, pedagogo eta gizarte-languntzailez osatua, umearekin ez ezik familiarekin lan egingo duena. Parejaren arazoak konpontzeko jarri duen taldea medio, laguntzen zaie gurasoei, umea bueltatu ahal dadin. Era honetara aurrean duten errealitatera ohitu daitezten denak. Kasu oso extremo eta okerretan ateratzen dituzte beren familietatik. Horregatik eta familieei ere behartsu-laguntza ematen zaielako jeitsi da duela hamar bat urtetik hona hainbeste Segurara datozenen kopurua”.

G.-- Eraginik badute familikiko problemok umeen garunetan?

A.G.-- Guk ez dugu horrelakorik, baina badakit Fraisoren bakarren bat badutela. Beno, kasu bitxi bat badugu Tolosakoa, arazo fisiko-psikikoekin, ez dakit atrofia

muskularra izango ote den. Heziketa bereziko klaseetara doa, Beasaingo “Aspace”ra joaten da.

G.-- Ikusi izan dugu mutiko bat ogia ekartzen herritik. Zer moduz konpontzen dira segurarrekin?

A.G.-- Asko aldatu da garai batean txikiokiko zegoen ikuspegia. Oraindik ere erretxazo txiki batzu badira. Garai batean oso negatiboa zen, aintzakotzat hartuak izateaz gain, bertan gertatutako txikizio guztiak ume hauei atxakatzan baitzitzaizkien. Egun ez da hain ezkorra, gutxiagotu ere egin dira gainera. Nahi baduzu gaizkile-tipokoak ziren, txikiketak ere egingo zituzten. Orain familietakoek eramaten dituzte berekin, bertako umeekin jolasten dute, ludotekan eta herriko festetan esku-hartu izan dute, kultur etxean... Orixe besterik ez dugu eskatzen.



G.-- “Besteak ez bezalako” direlako sentsaziorik badute eskoletan?

A.G.-- Hori zentruak nola hartu eta tratatzen dituztenaren arabera doa. Beasaingo kolejiotan ez dugu prolemarik izan, beste edozein bezala hartzen dituzte. Errendimendua ez da etxe-giroa ona duenaren adinakoa. Ederki integraturik daude, halere.

G.-- Gurasoak ordezkatu litezke, afektu aldetik?

A.G.-- Ez, ze nahiz eta asko maite ditugun, eta hori badakite umeek, oso bestelakoa da gurasoek eman dezaketeena eta hori ere badakite. Datorren kurtsoan 6 ume izango ditut taldean, baina aurrekoan 17 nituen. Nahi eta ere... Umeekin era askotara jokatu behar da. Nabarmenkerian edo bihurrikerian ari bada bat, etxekoa falta zaielako eta hemen atentzioa bereganatu nahi duelako da. Jaso zaio eta dena nahi du beretzat. Denekin egon behar dugu eta ikusarazten zaio horri, talde ezberdinetako hezitzaileek hitz egiten dugu, erabaki bateratuak hartu eta aldatu behar izaten dute joeraz.

G.-- “Seguran bizi” izanak markatzen du jende hau?

A.G.-- Batzu oso harro daude hemen bizi izanduz. Ez zazula uste. Gustora esango dizute. Ezagutzen ditudanei, eta ez dira gutxi, ez zaie ajola hori aitortzea. Hemen juntatzen dira, afaltzen dute... Hemendik pasatakoak eta familia bikainak dituztenak ere badira. Atea ireki eta era horretan

begira jartzen zaizkidanean esaten dut nere artean: “Iaesta, hemen izandako mutilen bat”. Galdetu eta baietz. Etxea ikusi al dezakeen. Barrura. Gauzak kontatzen hasten dira, seme-alabak ekartzen dituzte jakin dezaten beren aita non egon zen, eta holaxe.

Etxe baten balioa

1952.ean ireki zen zerbitzu hau, Centro Superior Protección de Menores delakoaren eskutik. 1930.ean altxatu udalekutarako eta 1946.ean handitu zuten. Hiru pisukiko bi pabilioi ditu: bost logela handi, lau sala, jantokiak, ikasgelak, frontoi eder bat, saski-baloi kantxa, e.a.

50 lagunentzako kapazitatea dauka; 20 bat lagunekin hasi eta 25 ingururekin bukatuko dute kurtsoa, iaz bezalatsu, joan eta etorritakoen batz bestekoa. Alojamentua, mantenua, asistentzia eta elkarbizitzaren premiak gutxi ordaindurik dituzte ume koxkurtuok.

Zuzendaritza, Karitatearen Alabak Kongregazioko seglar komunitateak darama. Gaur egun ez du zer ikusirik Madrilekin, Gipuzkoako Diputazioaren menpe dago, Osasun eta Gizarte Ongizate Departamenduaren Adingabekoen Zerbitzupuan. Dagoeneko ez da "sehaska-etxea", Foru Diputazioak bidalitako adingabekoentzako internatua baizik. (Astebururen batean etor litezke Ertzantzak edo Udaletxe batek bidalirik ere, iada Gipuzkoatik bakarrik. Azken erredadetan bezala, angolar eta ginear neskak atenditu zituzten; beste era batera, prolemarik gabe beren bizitza egin dezakete, diziplina onartzen duten bitartean).

1981.ko aurrekontuak ia 20 milioietakoa zen, adibidez. Aurtengoa bikoitza igoal izango omen da, baina ez daki ziur, hilero moldatzen baita. Inolako prolemarik ez dute Diputazioarekin. Eskatutako guztiak ematen dizkiete, "nahikoa duzu ahoa irekitzea...", dio zuzendariak.

Umeok internatu errejimenean bizi dira, zortziretan jeiki, ohea egin, loge-

la garbitu txandaka eta gosaldorenean Beasaina doaz. Seguran euskaraz irakasten baita. Horregatik doaz gutxitzen umeok Seguratik, ia denak erdaldunak izaki. Umeok atzerapena dakarte gehienetan (gehiengoren eskolarizazio handirik eza), eta hori larritu egiten da kurtsoan zeharko edozein momentutan sartzen baitira. "Hemen egin dezakeguna, geuk geure kasa laguntzea da", uste du hezitzaileak. Arratsaldetan laguntzen zaie klase partikularren bidez.

Gizarte laguntzaile batek eginiko testak adierazten zuenez, beren astialdia futboleak, bideo-jokuekin eta bideo edo telebistaren aurrean ematea gustatzen zaie. Horrela jarraitzen du horrek.

Neguan, hezitzaile bakoitzak du bere taldetxoak eta talde bakoitzak beren irakurketetan eta mahai-jokuetan dihardu. Bakarren batek izango du berezko afizioa, hori bai. Bada mutiko bat, arazo latzak izan arren, kalifikazio oso onak ateratzen dituena. Beste bati, "armonium" bat erosi zioten hemen eta Seguratik Donostiara joan eta gero musika ikasketak egiten ari da, dohaiak bai baititu, bertako komunitateak pagaturik, bere familia desastre xamarra izaki.

Familiarekiko erlazioak

Asteburuetan, garai batean baino ume gutxiago joaten dira beren etxetara, prolematikoak geratzen baitira, baina joaten dira. Hori bai, hezitzaileok kontsideratzen dutenean kontaktu hori txarra dela, erabaki dezakete eragozteak edota familiakiko kontaktua beren aurrean izatea. Oporretan, uztailen, euren etxekoekin

joaterik ez daukatenak, Estaduko beste zenbait lekuetakokin joaten dira kanpamenduetara, bigarren etapaldiak, eta txikiak, lehen etapakoak, Nafarroako Beirera doaz beren tutore horiekin. Familia-umearekiko erlazioei dagokienez, banandurik egoteko gehieneko epea hilabetekoa da, legeez, ikusi ezin liratekenean telefono-deiak egin ditzaketeelarik. Ostera, familiak umearekiko duen botere guztia kendua lukete Diputazioa errekurrituta. Tramiteak egin daitezke orduan ume hauen adopzioarako. Umeak adoptatu izan dituzte, 8-9-10 urtekoak, nahiz eta zailagoa den, handixeagoak baitira. Ondorio onekin atera dira ume adoptatu batzu, baina bueltatu ere egin dituzte zenbaitetan.

Istituzio honetatik ateratzerakoan, famili-girorik badutenak, etxeratzen dira. Gainontzekoak ekimen partikularreko etxetara doaz, 5 ume/2 heldu guraso-ordetzan. Neska-mutikook horrela bizi dira harik eta lana aurkitu arte, 18 urte arte, atzeratutakoak baitaude ikasketetan. Desbinkulaziorako eta tutorerik gabe bizitzeko prestatzen dituzte pisuetan hurrena. Azken aspektu bezala, psikologo eta pedagogo espezialduen beharra aipatzen du hezitzaileak. Psikologoa 4-5 alditan Segurarako zen iazkoan eta berak joan behar izaten dute Donostiara. Gauzak asko hobetu bide dira alde gehienetatik, baina beste zentru egokiago baten premia nabaria da. Agintariak horren atzetik ote dabiltzan ustea du Arantxa Gorritxuk. Orain, noiz egingo duten? Izan ere, aterpetxea zaharkitua gelditu da eta Segura urrutitu geratzen baita kapitaletik: familia, arazo eta erremedio horien gunetik.

Jon Mikel Arano

ALBISU
KRISTALDEGIA

Industrialdea
Tfnoa: 88 71 58

ORDIZIA



MAPFRE TALDE ASEGURATZAILEA

-Bulego berriak
Goiz eta arratsaldez

Garagarza enparantza, 8 20240 ORDIZIA
Tnoak: 88 46 46-88 71 54 Gipuzkoa



MUEBLES
Ordizia

HALTZARIAK

Tfnoak: 88 23 50
88 23 54
88 11 92
88 53 50

46, Posta Kutxa
ORDIZIA



iRVROK S.L.
ZERBITZU OFIZIALA



N-1 Madrid-Irun Errepidea
Tfnoak: 88 51 50 - 88 51 54
OLABERRIA

RAIMON MUSIKAL

**JAMO PROFESIONALA
BANATZAILE OFIZIALA**

Korda eta Haize musikagailuak

ZALDIZURETA, z/g.

Tfnoa: 88 55 20

BEASAIN

G U R P I L
BIZIKLETAK

Bideluze Plaza, z/g. - Telf: 88 89 51
Nafarroa Etorbidea, 3. - Telf: 88 21 03
20200 B E A S A I N



HIDALGO

BITXIDENDA • ERLOJUDENDA

LEGAZPI, 4
Tfnoa: 88 04 06

ORDIZIA

MUJIK A AUTOAK S.M

JABIER Mujika Txapartegi
tailer eta zerbitzu-burua

N-1 Errep. Nagusia., 419.Km

Tfna: 88 74 00 / 88 74 04

Fax: 88 79 52 **BEASAIN**

**KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKOA**

Goierritarrentzako mediku zerbitzu askotarikoak
ordua aurretik eskatuz. Tfnoa: 88 57 50 - 88 5854

Nafarroa etorbidea, 25 - 2. **BEASAIN**

**BEASAINGO
TABERNARIEN
ELKARTEA**

"ARGI-BERRI" DU SUSTRAITZAT ETA BERTSOZALEAK ONGARRI

Bertsolari-Eskola ia 10 urte fruituak ematen



Ordiziako "Argi-Berri" Elkarte 1977.ean jaio eta 78.ean baitaiatu eta eratu zuten kultur elkarte gisa zenbait euskaltzalek, nolabait legalizatuko bazuten. Hasieran ez zeukan helburu konkreturik, baina ez dirudi erratu direnik. "Argi-Berri"k ekintza printzipal bezala bultzatzen duen Bertsolari-Eskolari buruz aritu gara Joxe Mari Barandiaranekin.

Hasiera batean guraso elkar-teen-eta Ordizian antolatzen zizutzen San Silbestreko korrika apustuen inguruan-eta aritzen ziren argiberritarrak. Elkar-teen bere nortasuna behar zuela eta Goierriko Bertso Eskola antolatzea gauza ontzat hartu zuten. Geroztik joetafuego aritu dira eta gauzak ondo atera bide zaizkie. Saiatuta.

Ordiziako Bustuntza auzora inguratu eta norbaiti irudituko balitzaio beste "elkarte gastronomiko" baten aurrean legokeela, esan, ez dela guztiz horrela. Ez da "hori", berez eta bere estatutuetan.

"Orain, beste soziedade gehienak bezala horra erortzen dela? Bai, baina gurea ez huen hortarako jaio. Kulturala da berez. Kultura baino gehiago tripea lantzen dela, edota triparen kultura? Ez diat ezeztzik esango", diosku Barandiaranek, Elkarte eta Eskolaren arteko "gizon-zubiak".

"Beste zerbait" ere badela "Argi-Berri". Mus Txapelketa bat egitea urtero asumituta dute gaurgero. Azken "Herri-Urrats"i laguntza eman zioten, esaterako, "euskaltzale bat, erroskila bat" lemapean. Eta Ordiziako festetan Udaletxe-azpian jartzen duten tonbolak badu zer ikusirik beren ekintza inportanteenarekin: Goierriko Bertsolari Eskola babestea.



Joxe Mari Barandiaran: "Ez goaz txapeldunak erditzera. Ez bada ateratzen ez da ateratzen."

Bertsolari-Eskolak ia 10 urte

Bertsolari-Eskolak 82.eko udazkenean ekion zion bere jarduerari. Idea hor zegon eta hor dago. Joxe Mari adierazten digunez, "ez dago bueltarik; bidea egiten ari gara, idea martxan jarri zenez geroztik ez du galdu funtsik".

Bertsolari-eskola askorik ez zen duela ia hamar urte, lehen pausuak etziren errazak, ez; alde batetik esperientzia falta eta eredu jakin eta zehatzik ez.

Helburu bat, eskol-haurren artean ber-

tsozaletasuna piztea; bestea, pausu batzu emandako taldeari aurrera egiteko laguntza eskaintzea.

Bertsolari/irakasleek egiten duten lana, lehen helburua, "ikastola eta ikaste-txeetan egin eta etorri behar zela uste genuen. Euskarako irakasleek terrenoa abonatu zutela. Baina lan hori ja ez da egiten edo egiten dena apurra, urria da. Orduan, bada, guk jarraitzen dugu. Baina gure azkeneko nolabaiteko helburua bigarren fasea da: bertsolari gazteekin lan egitea", dio bertsozale ordiziartuak.

Hau da, Gipuzkoako lehiaketa gehienetan (Zarauzko Lizardi, Errenteriako Xenpelar edo Gabiriako Osinalde adibidez) irabazle edo Euskal Herriko Txapelketa Nagusirako sailkatu diren bertsolari gazte talde horrekin: Narbarte, Elortza, Munduate, Gerriko, Aranburu, eta besteekin.

Ordiziako Barrenan hartu zuten leku. Ehundaka gaztetxo pasa dira bere geletatik, larehun inguru. Pozik daude emaniko fruituekin.

"Ba-bai. Pentsazak, dugun jendearekin. Eta kontua da, emaitza ikusi besterik ez dago piskabat jabetzeko, Gipuzkoako Txapelketa egiten denean gure bertsolari gazteak geratzen direla finalean. Zer esango duk? Gustora egotekoa duk. Halere, ez goatzek horren atzetio, txapeldunak erditzera. Ez bada ateratzen ez da ateratzen". Bertsozaleak ere beharrezkoak dira azken batean.

Ekonomi-kezkariak ez

GOIERRITARRA.-- Dirulaguntzen aldetik ondroso, ezta?

J.M. BARANDIARAN.-- Bertsolari-Eskolarako dugunaz ez dugu kejarazkerik. Hor ere goraberak izan dituk, zergatik, gogoratzen nauk, Diputaziotik jasotzeko bidea ireki ziguna Odriozola, Jose Manuel izan huen, hango euskara batzordean zegoena, LAIAkoa. Hura eta Elixabet Garmendia. Eskaria Udaletxearen bidez sartu genian eta onartu egin ziguten milioi erdi eta muebleria ematea. Oso ondo. Hor gertatu huen hiru urteren buruan jeitsi egin zela laguntza eta asko gainera. Jeitsi eta jeitsi, iritsi huen momentu bat hamabost mila duro ematen zigutena. Esan geniana, "Joño, hau ez dek posible!".

Aurreneko urteetan 60 bat ikasle juntatzen zituzten Ordizian. Taxia ordainduta ekartzen zituzten bospasei ikasle Zegamatik. Joan Diputazioara eta Ester Larrañagari galdetu zioten zer gertatzen ote zen.

"Hark esaten zuena, eurak ezin arituko zirela pagatzen Seguratik eta Ataundik guk jarritako bus eta bestetan zetozen gaztetxoek karreoak pagatzen. Horiek udaletxeek ere pagatu behar zituztela".

Bidea udaletxeak ziren eta Goierriko guztiak korritu zituzten. Eta beno, nahiko ondo hartu omen zuten udaletxeetako jendeek beren proposamena. "A-trankas-i-barrankas" ibili ziren, kostatu egiten baita udal-jendea biltzea. Zortea be-



Bertsozaleak ere beharrezkoak

raiena, ze gaurko egunean, ia ezinezko dago. GOIERRITARRAren esperientzia lekuko.

G.-- Zortea ala lana?

J.M.B.-- Kostatu egiten duk, ez da erraza, ze ordurako bilera piloa genituen bizkarrean. Aurrena Udaletxe guztietatik pasa. Bilerara deitu: zortzi etortzekoak, bi bildu... Beste baterako utzi.... Beharbada, gauzak zailago egongo dituk orain. Azkenean behintzat iritsi gintuztean guk nahi genian lekura eta konformatzeko moduan.

Nik baloratzen dudana, ordea, duk, jakina, garai hartan ikusi genian lau urtetarako bakarrik zeudela Udal-batzak. Haiek pasatakoan, zer? 85. inguru hortantxe zen. "Joño, guk agiri bat behar dugu". Konpromezu bat hartu elkarrekin, bilera bat egin Ordizian, denok konforme, sinatu eta gaur arte. Geroztik ederki, urtero diagu dirulaguntza".

Orokorrean, balantze baikorra. Gasteiztik ere laguntzatxoren bat jasotzen dute, bertso-saio truke. Aurtengorako bederatzia saio. Diru aldetik kejarik ez, beraz. Bestalde, ez dabil alferrik Mendizabal bertsolaria Foru Diputazio eta bertsolari-eskolen arteko hitzarmenetan.

G.-- Batz-besteke zenbat ikasletan zabiltzate? Zein da gaurko panorama?

J.M.B.-- Orain jetsita zegok, egia esan. 40 inguru horretan. Eta esan behar da gainera, ikasturte hasieran eta bukaeran kopuruak ez direla berdinak.

Egindako lanari antzematen zaiola!

Mimetismoz ere apuntatzen da gazte-jendea, antza. Halere, beren helburua zerbitzu eratu bat egon dadila denez, nahi duena joan liteke eskolara eta nahi ez duena ez. Irakasleei ordaintzen zaie eta hor dago. Ez da gutxi.

Prolema zerean ikusten dute: "Argi-Berri"ko ia inor ez dago erlazonaturik

ikastetxeekin. Irakasleekiko erlazio zuzena irakasleek dute, horiek arduratu eta busti beharko lirake bertso-hezkuntzan, "Argi-Berri" eta Bertsolari-Eskolaren arteko "uztari" den Barandiaranen esanetan.

"Zenbat bustitzen den irakaslea, ondorioak ikusten dira. Esate baterako, garai batean Ataungo Goiko asko bustitzen huen asunto honekin. Lana egiten den lekuan antza ematen zaio. Azken bi urteetan zegamar ikaslerik ez dator, lehen ez bezala. Hori normala da? Lekuan-lekukoa egiten duenaren arabera dago hori.

Ikastol, e.a.etako irakasleekin harreman gutxi izan dute; bileraren bat edo beste. Harreman gehiago eta sendagoak behar direla deritzote. Haiek ere beste mundu bat izango baitute. Lan isila bezain premiazkoa baita, bere ondorioak dakartzana.

Bertsolari-Eskola propioko irakasleekin ere zortea izan dutelakoan daude. Mikel Mendizabal, Nikolas Zeberio, Xanti Garmendia, Euxebio Igartzabal... "Laguntasun handia dugu horiengandik. Bere garaian, Iñaki Murua ere prest zegoen. Ikusten zuten aurrera egiteko zera hori".

Datorren urtean 10. urteurrena ospatuko du Goierriko Bertsolari-Eskolak eta zerbait pentsatu beharko dute. Dirua ere beharko dela orduan-eta.

Hainbeste aipatu izan den bertsolaria jaio edo iaio egin-egiten ote deneko dilemak zaharkitu usaia hartu du eta, azken urteetako ondorioak ikusirik, ezin ukatuzkoa da abileziak landuaz lorpenak ere oparagoak izaten direla. Urte asko horrelaxe!

Jon Arano
Mikel Aramendi



Ataun garbi baten alde

HERRIA

Herriko gazte batzuei bururatu zitzaien ideia izan zen. Uda-usainean. Laister jarri zituzten papalak eta pankartak herrian zehar.

Apuntatu zen jendea, gehienak behintzat finak izan ziren beren zita horrekin.

Goizeko bederatziak ziren, eta eguraldi tristea. Lizarrustira igo eta lanean has-teko garaia, beraz.

Markesarenak zirela garbitu behar genituen lurrak. Hori denok genekien, baina hura ez zen gure kezka: Ataungo ingururik ederrenetako bat nola zegoen ikusteak bultzatuta hasi ginen lan honekin.

Denok ere gazteak, eta, bezperan parranda apur bat eginak geunden, lo gutxi

eginda, hortaz. Atzera egiteko moduko gauzak eta zakarrak ikusi genituen, usain nazkagarria ere, baina hala eta guztiz go-gor eutsi genion gure lanari.

Hamaikak inguru, salda beroa genuen, indarberritu eta berriz lanean jarraitzeko. Txirrindulari eta kotxeak gora eta behera hasi ziren ordurako, eta normala den bezala, denak aho- zabalik gelditzen ziren.

Batek baino gehiagok erotu ginela pentsatuko zuen, baina berdin da.

Guk, batak besteari animoak eman eta segi aurrera. Saski batzuk, bertan zeuden baldeak eta goanteak ziren aski Lizarrusti garbitzeko.

Eguerdiko ordubata baino lehen, Lizarrustiko gainera iritsi ginen eta handik bazkaltzera. Ez genuen, ez, dena garbitu,

egia da, baina genezakeen guztia egin genuen.

Egun batzuk, gutxi-asko, Lizarrustiko "altxorrak" bide-ertzean izan ziren, jendearen ikusgai, kamioi batek eraman zituen arte.

"Artadi" Elkartean egin genuen bazkarian, ordea, kezka ugari azaldu zen. Jendearen parte-hartze kaxkarra, Udaletxearen laguntza motela eta beste leku eta inguru askoren egoera zikina, nagusi-nak.

Jendearen kontzientziaziorako balioko zuelakoan, beste "noizbait" beste zerbait egingo genuela esanaz bukatu genuen. Beste batetan zeu ere etorriko zarelakoan, beraz,

ATAUN GARBIA!!!


"Zarama" (Ataun)



Marijo, Iña eta Agur "Marron"ek «harria» nola jasotzen duen begira.



Lizarrusti mendia garbi behar dugu!!!



Makina bat zaborra eta zabortegi deskontrolatu bada Goierrin. Honakoa nola zegoen jaso zuen Eleuterioren "begiak".



Hamaikako bikaina Lizarrusti garbitzen. Uda aurretik izan zen.

ARGIAREN HARPIDE IZAN NAHI DUT:

IZEN DEITURAK:

HELBIDEA:

HERRIA:

P.K.: TFNOA:

HERRIALDEA:

BANKUA/AURREZKI KUTXA:

SUKURTSALA:

KONTUAREN ZENBAKIA:

*Irakur biharko prentsa
gaurtik*

Industrialdea, 1-2 pabiloiak
20160 Lasarte-Oria
Tfnoa: (943) 37 15 45 - (94) 424 46 63
Faxe: (943) 36 10 48

A ze flaxa!!!



Idiazabalgo Zepai jatetxeko komoneko atean.

Pilar Barandiaran: «Bizia eman dut osaba zaintzen baina ez naiz damu»

A. ITURRIOTZ / ATAUN

Bizia eman du Pilar Barandiaranek Joxe Migel bere osaba zaintzen, baina pozik ageri da, ezin daitekeela kexa esanez, eta bigarren aldiz jaiota ere bizimodu berdina nahiko lukeela gaineratuz. Hamalau urtera arte herriko eskolan ibili zen Pilar, eta beste hiru urte egin zituen Gasteizen, baina bere esanetan, ez zen ikasketetara batere emana eta gutxi ikasi zuen. «Horregatik eraman ninduten Sarara, osabarengana. Ez nintzen bera zerbitzera joan, zerbait ikastera baizik. Ordudanik nago berarekin eta hemen segitzen dut, pozik».

Osabarekin batera bidaia asko egin eta toki asko ezagututakoa da Pilar. «Gazteak ginela, osabak hitzaldiak ematen zituen nonnahi eta taxia hartuta, bidaia probetxatuz, gu ere asko mugitzen ginen —oroitu du—. Hemendik joaten ginen bi-hiru lagun berarekin batera eta bera lanean zen artean, gu dendak ikusten ibiltzen ginen. Badakizu emakumeek zer dugun!. Baina konpra askorik ez genuen egiten, dirua zorri izaten zen eta». Batipat Euskal Herrian ibili da Pilar eta Madrilan ere izan da. «Madril ez nuen batere ikusi, osaba gaixorik zegoen, nekatuta, eta ni bera zaintzen egon nintzen». Joandako leku guztietan harrera izugarri ona egin diotela azpimarratu du. «Oso ondo hartua izan naiz ailegatu izan naizen tokietan eta denekin ondo arreglatu naiz».



GEMA M. ARRUGAETA

SOSLAIA

Sara utzita Sarara itzuli

Sara herrian hamalau urte egin zituzten Pilar eta osabak eta urte haiek oroitzuz Ataungo etxetxoari Sara izena eman zioten. Jendartean ohituta dago Pilar, baina halere errezeluz begiratzen dio argazkilariari eta ezer gutxi esan orduko amaitu nahi du elkarrizketa. «Lau pareton artean egonda zer esatea nahi duzu?» dio behin eta berriro. Gazte denborei buruz galdegin eta «haiek pasa ziren» dio herabeki, mutil-lagunik izan zuen galdera airean utziz. Buru argia eta osasun ona dauka Pilarrek eta bere itxurak ez du besterik erakusten: ondo apainduta, ileak ondo orraztuta, mardul, emakume ederra izan denik ezin ukatu!.

Bere dedikazioaren esker-garri, herriak omenaldi bat eskaini zion duela urte batzuk eta baita Etniker elkarteak sari bat eman ere. Bihotzetik eskertu du detailea baina hala ere ospeak atzera egiten diola aitortu du. «Hor kanpoan azaltzeak arrabia ematen dit. Oraindik ere denbora gutxi dela, duela urte t'erdio edo, Villafrankara joan nintzen zapatak erostera ilobarekin. Zapateri batean nengoela andra bat hurbildu eta ezagutzen ninduela esan zidan, egunkarietan ikusita. Eman zidan arrabi bat!. Gero handik beste zapateri batetara joan eta gauza berbera gertatu zitzaidan beste emakume batekin. Goazeman hemendik etxera!, esan nion ilobari, ni ez nator gehiago hona!». Esan eta egin, Pilar ez da orduz geroztik Ordizian izan, ez eta etxetik inora irten ere. Baina badu beste arrazoirik. «Ez naiz ordudanik inora atera, ateratzerik ez daukadalako. Osaba utzita ezin naiteke joan inora». Ahal izan duen arte, Pilarrek eraman du etxeko martxa: jaiki, mezatara joan eta elizatik bueltan etxeko lanak egin; bazkal ostean, sukaldea jaso eta gantxiloa edo eskulanean aritu. Egun, ordea, ez du etxeko lanik egiten eta osaba zaintzeaz arduratzen da soil soilik, «zergatik laguntzaile asko dauzkate orain —esan du—. Iloba batek egiten dizkit etxeko lanak eta gauera-ko moja bat etortzen zait. Gauza naizen artean orain arte bezala jarraituko dut» esan du komentaturik.



ZABALA KAFEAK

Nafarroako etorbidea, 2
Tfnoa: 67 20 30

TOLOSA

GOIERRITARRA etxean jaso nahi dut

NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA..... TLF.

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

DOHAIN GOIERRIKO ZENBAIT UDALEI-ESKER

Lazkao Txiki: «Publikoan txistea egitean, beti azaltzen da Santa Mariaren bat»

A. ITURRIOTZ / LAZKAO

Beasaingo taberna batean harrapatu dugu Joxe Migel Iztueta 'Lazkao Txiki'. Azken hogeitortan bertan bazkaldu du egunero. «Baserrian ez dugu telefonorik, eta enkarguak nonbait hartu behar dira; etxean bakarrik bazkaldu beharko nuke eta lagunarte pixka bat egin beharra dago». Zaldibiako bere baserrian bizi da, bakarrik, eta etxeko lanak berak egiten ditu. «Plantxan egiteko ere banaiz. Maixurik onena beharra da» esan du. Emakumezalea izan da beti, baina ezkongabe gelditu da bertsolaria, «ederra ez naizelako edo —dio—. Emakumeek beti gizon handiak eta tipo onekoak maite dituzte. Beti pentsatu izan dut besteak hainbeste ez ote naizen». Izakeraz nolakoa den galdetu diogunean, Otañoren hitzak bereak egin ditu: «Norbera nor den dakiena da munduko gizonik azkarrena».

Festarik festa dabil beti bertsotan eta azkenerako 'festa' zer den ez dakiela dio. «Behin ere lanik egin ez zuen mutil bategi bakazioak hartu behar zituela esan zidan eta nik zera erantzun: 'hik antzemango al diok bakaziotan al hagon!'». Bertsotan zertxobait aspertuta dagoela azpimarratu du, «hainbeste urtetan ibili eta gero, gogoa pixka bat galdu ere egiten da eta». Bertsolaririk onena zein den esatea ezinezkoa da Lazkao Txikirentzat. «Ez dago esaterik; langosta edo txuleta, hobe zein den galdetzea bezala da». Garai bateko eta oraingo



SOSLAIA

«Lazkaon jaio eta hazi inon ez»

Jaio Lazkaon «eta hazi inon ez», dio. Jaio geroztik beti lanean ibili da, «batean bat eta bestean bestea». Bere Ritmo autoan «a todo ritmo» ibiltzen omen da. Daltonikoa da, ez ditu berdea eta gorria ondo bereizten, gorri bizi bizia ez bada behintzat, «eta beste bati galdetzen diot askotan arropa batekin bestea ondo datorren». Kirolen artean pilota du gogokoena eta futbola ez omen du behin ere ulertu. «Oso mendikoa naiz eta gartzetan ez gintuzten eraman futbola ikustera. Oraindik ere ez dakit zer den 'fuera de juego' edo delako hori. Behin Zelaieta futbolistari galdetu eta bat aurreago eta bestea atzera egotea zela esan zidan. Kontxo!, biak batean egotea zaila duk ba!».

bertsolarien artean ez dago alde handirik bere ustez. «Baina ez dut ulertzen zergatik ari diren rockero eta drogadiktoen hizkuntza bertsotan sartzen; zaharra esateko 'karroza' esatea, adibidez. Karroza bat zer den badakit nik, eta jaietan karroza berriak ere izaten dira. Aurki edozer gauza esanda berdin izango da. Hor atzeraka goaz, euskaldun askok ez bait du jakiten erdarazko hitzik. Eta, gainera, behin sartuz gero, hitzok hor gelditzen dira!». Oraindik areago argitu nahi izan du bere esplikazioa. «Euskaldun bat gailego batekin zegoen eta gailegoak esan zion: 'Badakit ez gaituzuela ikusi nahi eta nahia-gozu zenuketela hilda bageunde'. Euskaldunak erantzun: 'Nahia-gozu dut zuetako bat hiltzea baino, gutako hiru hiltzea. Gallego bat hiltzen bada, hogeitortzen dituk entierrota eta hamabost hementen gelditzen dituk'».

Txistetan bertsotan bezain trebea da lazkaotarra. Lagun jakin batzuekin bai baina publikoan ez du, ordea, txisterik kontatu nahi izaten, «peligroso xamarra delako, beti azaltzen bait zaizu Santa Mariaren bat, berdea zarela eta ez zarela». Burura datorkion lehen txistea konta dezala eskatu diogu, azkenik: «Behin mutikozkor bategi esaten dio amari; 'ama, ama, zatoz azkar, zatoz!'. 'Zergatik, zer duzu Josetxo?' 'Aita hilda dago'. 'Non?' 'Eskilarapean, neskamearen gainera erorita dago hilda'. 'Hilda al dago?' 'Ez azkenetan, oraindik ipurdia pixka bat mugitzen du'».



Giro on eta jatorra

Tif.: 88 20 23
Iturrioz Kalea, 11

BEASAIN

**BODEGON
GOIERRI
JATETXEA**

Tif. 88 00 00

Kale Nagusia, 20

BEASAIN

Zer da eta zertan ari da Goiherriko Euskal Eskola?

Goiherriko Euskal Eskola 1977tik Goierri eta Euskararen alde lanean diharduen Kultur Elkartea da, aurretik ere Gaueskoletan egindako lana ahaztu gabe.

1988 arte helduen Euskalduntze eta Alfabetatzean egin zuen lanik gehiena. Eskolak emateaz gain kultur ekintzak antolatu eta kalean ere ikasleek euskal giroa aurki zezaten saiatu da. Beri ere azken helburutzat, kalea, Goierri, euskalduntzea izan duelarik.

Asmo horri helduz, eta aurretik erabaki bezala, 1985ean Gerriko Txokoa, Taberna eta Liburudenda martxan jarri ziren: euskaldunberriak euskalduntze-bidean eta zaharrak alfabetatzekoan laguntzeko eta euskaldun zahar eta berriek elkarri hizkuntz erabilpenaren bultzada eskaintzeko.

Guzti horrek eragina izan zuen 1988an Maizpide Euskaltegia sortzeko. Euskaltegiak irakaskuntzaren alorra bere gain hartu zuen. Horrek ordea ez zuen esan nahi Goiherriko Euskal Eskolaren egitekoa amaitzen zenik. Euskararen irakaskuntza alde batera utzirik ere, Euskalduntzen eta Alfabetatzen ari den jendeak ikasitakoa non erabili izan dezan, Goierri kalea euskaldundu eta Euskal Kulturengintzaren alde badago zer eginik.

Eta horretan dihardu egun Goiherriko Euskal Eskolak. 1988an I. "Gerriko" Idazlan-Sariketa antolatzeari ekin zion. Jasotako lanak zuzendu, txukundu eta osatu ondoren liburu bakar batean argitaratu genituen. Liburuaren banaketa zabala egin dugu eta jasotako erantzuna arrakastatsua izan da erabat. Aurrera begira ere bide horri heldu diogu eta, geroztik eta indartsuago, jarraipena emateko asmo sendoa dugu. Behinik behin II. Sariketa ere bideratua dago: lanak jasoak, sariak banatuak eta datorren urtean argitaratzeko bidean.

Horren inguruan aurtengo lehenengoz

Goiherriko Euskal Eskolak, 1989an I. "Gerriko" Idazlan-Sariketa antolatzeari ekin zion.

antolatu dugun, eta urtero jarraipena izango duelakoan, Kultur Astea ere hor dago (azkenean Kultur astetik "hambostaldia" izatera iritsi dena, egitaraua holakoxe zabala osatu bait dugu).

Eta Goierri mailan kalea euskalduntzeko euskarako eskolak eman eta kultur ekintzak antolatzea garrantzitsua bada, eskuarte dugun soziolinguistika-mailako ikerlanak burutzea ez da garrantzi gutxiagokoa.

Soziolinguistika mailako ikerlana, bai: Eskolorduz kanpo O.H.O.ko umeen Euskararen erabilpena alegia.

O.H.O.ko haurrentzat eta eskolorduz kanpo bai ikastetxe eta bai herriko Elkarte desberdinek antolatzen dituzten ekintzak ditugu aztergai; kirol mailakoak gehienbat.

Ekintzak definitu ondoren bakoitzari buruz jaso dugun informazioa, zabala izan da (nahi bezain zabala ez baina...): ekintza hoietan parte hartzen dutenen euskararen ezagupena eta erabile-

ra, bai ekintza bera burutzen den bitartean, bai antolaketa-lan guztietan zehar ere.

Datu zehatz guztiak jaso ondoren, egun eta maila horretan, Lazkaoko euskararen egoeraren azalpena egiteko moduan gara. Ondoren, gure helburua zera da, ekintza horiek antolatzen dituzten Elkarte, Ikastetxe eta pertsona guztiekin harremanetan jarri eta euskararen


erabilera hobeagotzeko, aurrerapausu bat emateko, hitzarmenak egin eta bitartekoak jartzea.

Helburu hori lortzeko, ordea, beharrezkoa izango da guztion laguntza eta inplikazioa. Eta inplikazio horretan garrantzitsua izango da Udalarena, bera izan beharko bait luke eredu eta bultzatzaile.

Besterik gabe, mila esker orain arte datu-bilketan lagundu gaituzuenoi eta aurrera ere gure herrian euskararen egoera hobeagotzeko GUZTION laguntza behar denez, gurekin elkarlanerako prest izango zaretelakoan, laister arte!

**GOIERRIKO EUSKAL ESKOLA
KULTUR ELKARTEA**

GOIERRIKO EUSKAL ESKOLA



Elosegi 16, 1. ezker
20210 LAZKAO
(Gipuzkoa)

☎ 160282
Faxa 887971
I.F.K. G-20117743



AHAL BADA, IPURDIKO MINIK GABE IBILI ETA KONPONDUKO AL DA

Txirrinduzaleen arriskua

Beste hainbat zaletu bezala, uda garai-ko eguraldi bero eta "atsegina" lekuko, txirrinduaz ibiltzea gustatzen zaidan lazkaotar bat naiz, eta azkenaldian beronek dakartzan arriskuaz zertxobait esan nahi nuke.

Badirudi, gizarte "aurrerakoi" honek, ez duela presarako ez den tresna eta bizi-modurik onartzen. Horrela, kirolerako (gehienbat) edo eguneroko tresna bezala txirrindua erabiltzen dutenek, ez dutela, presaren presaz edo bakarrak diren us-tean, gidatutako autoren erasorik jasan beste erremediorik.

Hau, noski, kontu zaharra da, eta behar bada, denok edo askok entzun, esan eta komentatu duguna, baina errudun asko eta konponbide zaila duena nonbait. Horregaitik, hau esateak, ezer berririk ez duela suposatzen sinisturik nago, baina, zer arraiol, irakurtzen duenarengan, zertxobait pentsarazteko aina eraginik badu, ba da zerbait.

Lan ondorengo arratsalde, edo aste buketan, jende askotxo irteten da errepidera, txirrinduan ibiltzera. Batzu pasiozale, kirolzale ohiak. Besteak egunean zehar batutako "adrenalina" izerditan ezabatzeko asmoz,... edo beste batzu "TOUR"eko idoloen izpilu bilakatu direlako agian. Denok bide lasaietan ibiltzea atseginagoa dugu noski, eta horregaitik bigarren mailako errepideetan nahia-go, trafiko handiko lekuetatik ihesi.

Bada Goierri alde honetan errepide bat, Lazkao, Atzandik zehar Lizarrusti mendatera doana, eta oso polita eta atsegina izateaz gain, txirrinduaz jende asko ibiltzen dena (ingurukoak gehienbat). Atzandik zehar "Kaxeta"raino pasioa edo Lizarrustiko itzalpean gora, Etxarri edo Arbizuraino jira egindakoak, ez dira, egunean, gutxi izango.

Baina txirridu zaleak areagotzen diren heinean, badirudi istripuak ere gehiago gertatzen direla, eta aurtan ere, izan dira istripu larriak, inguru horretan. Ez ote gara konturatuko autogidariok, ezinbestekoa dela, eta horrelako lekuetan gehia-go, zentzuz gidatzea, eta txirrinduan

dihoanak besteak hainbat eskubide duela bertatik ibiltzeko. Behar bada, kotxezalea txirrinduan ibiltzen ez den bitartean ez da egoeraz zeazki konturartzen. Nolanahi ere, zerbait mugi eta egitekotan txirrinduzaleok egin beharko dugu. Jende asko dabilen errepideetan, nolabait teko neurriak hartu behar lirarteke, eta ez dut uste hain zaila denik.


Badira Bizkain errepide batzu, asteburuetarako, autoentzat, abiadura-murrizpen bereziak dituztenak, horretarako txartel bereziak kokatuz errepidean zehar.

Ez dakit, kanpainaren ondorioak nabarmendu ote diren, baina, hasteko, bada zerbait.

Horregaitik, eta gure kasura etorritik, Beasaindik hasi eta Lizarrusti edo Etxarri bitartean txartel handi eta adierazgarri batzu jartzea, ez litzateke ideia txarra izango, bai alde batera eta bai bestera. Horrela, autoei, txirrinduzale asko topa ditzakeela adieraziz, eta abiadura murrizteko eskatuz noski. Era berean, dagokie-nek, bertako trafikoa gehiago zaindu beharko lukete.

Lan hau, nik ez dakit nori dagokion; behar bada inguruko Udalei (Lazkao, Beasain, Atzun, Etxarri, e.a.) edota Foru Aldundiei: denei seguraski.

Edozein modutara, denen arteko kon-



tzientziatze lana ere badela uste dut, eta proposatutako edo antzeko neurriak hartzeko ardura dutenak ezinez zirikatu beharko ditugu.

Baina mezu hauek, gehienetan, paper hutsean gelditu izan dira, eta beldur naiz ez ote den honekin berdin gertatuko.

Bitartean, txirrinduaz gozatzen jarraitzea besterik ez zaigu geratzen, hori bai, ahal bada, ipurdiko minik gabe izango al da!

Imanol Lasa
Lazkao, 91-VII-30

GERRIKO TABERNA

Eguneko Bazkari eta Afaria.

Elosegi, 16 Tel.: 88 99 43 20210 - LAZKAO

ARALAR

PAPERDENDA


- Bulego Tresneria
- Ikastolako Materialak
- «Olivet» idazteko makinak
- Fotokopiak

J.M. Barandiaran Enparantza. Tel: 881240
20240 ORDIZIA

MAPFRE

Hirigoien, 18 • Teléfono 16 13 61

LAZKAO



Gudarien Etorbidea, 4
Tel. 888511

20240 ORDIZIA
(Gipuzkoa)



Lizentzia 20214 MUTILOA
Tfno. 80 16 99

- * ETXEBIZITZAK SALGAI ITSASONDON
- * SALNEURRI OSO INTERESGARRIAK

OTEGI

ERAIKUNTZA OROKORRAK

- * 100 ETA GEHIAGO M²
- * TXIMENETA, ANTENA PARABOLIKOA,
BEROGAILU ISTALAKUNTZA EGOTIRUK, E.A.

Tfnoa: 88 49 36

ITSASONDO


TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak,...

Tfnoa: 88 89 53 ARAMA

Eraikuntzak P. ARMENDARIZ

Filipinas, 13 - Teléf: 88 49 50



HARRIA GRESAK

BERRIKUNTZA OSOAK

Nafarroa Etorbidea, 45
Tfnoa. 88 54 66

20200 BEASAIN

JATETXEA

Euskal
Sukaldaritzan
Especialistak



Enkarguzko Plater Bereziak

San Inazio, 15. Telf: 88 00 37

20200 BEASAIN

Ordiziako Euskal Jaiak direla eta ez direla

“Se me sube la bilirrubina...”

TXAPELA buruan, han eta hemen, munduan zehar ibiltzen hasten garenean, goierritarrok jende askorekin topo egiten dugu. Eta guk, ataundarrak, lazkaotarrak, beasaindarrak, ordiziarrek garela esaten diegunean, beren artean honela pentsatu ohi dute: “Hauek bai euskaldunak, inguru horretan bai geratzen direla benetako euskaldunak...”, eta hau eta beste. Baina kasualitatez Ordiziako euskal jaien Asteazken Santura etortzen badira, bilirrubina igo egiten zai erdara zein presente dagoen ikusita:

♦ bilirrubina igo egiten zaie propagandako gazta haundi batean “Campeon Ordizia” ikusten dutenean (eskerrak gauez norbaitek gutxienez “Txapeldun” jarri zuen...)

♦ bilirrubina igo egiten zaie gazta lehiaketa ondoren egiten den subastan hangoak erdara hutsez aritzen direlako, eta gazta lehiaketan bertan euskara oso gaizki entzuten delako (konponduko al dituzte inoiz horko megafoni arazoak?)

Eta kanpotar horiek ordiziarren batekin topo egiten badute, beharbada honek esaera zahar bat gogoraraziko die: “Lehen Villafranca euskalduna zen; orain Ordizia erdalduna da”.

2. Antzerkia: “Marxkarada”.

2.a. Etexzarreta zinea.

Oraindik oso aspaldi ez dela, pasadizo hau gertatu zen Etexzarreta zine zenean. Gertatu zenaren kronologia gutxi gora behera hauxe izan zen:

♦ iluntzean zen, kanpoan sekulako euri erauntsiak ari zituen eta antzerki saio baten esperoan zine guztian bederatzi bat lagun geunden

♦ badaezpada ere ordu erditxo bat itxoitea erabaki genuen, erdi lotsatuta, jakina, eta tarte horretan beste sei bat lagun edo inguratu ziren

♦ lotsa-lotsa eginda, zinea hutsik, antzerkia hasi egin zen (akelarreaki buruzkoa zelakoan nago)

♦ halako batean gure artetik gizon bat altxatu eta oihu batean hasi ez zen ba: “Obra honek ez du piperrik ere balio. Pu-



tza! Hau ikustera etorri al gara ba? Zoazte totoaren salara, komeriante aluok!” * ikuslego pobre, urri eta lotsatu hartatik bakarren bat altxatu eta aurrekoari mesedez ixilik egoteko esan zion, eta konaturatu gabe, noski, guzti hura obra bera- ren parte zela...

♦ gero ikusi ahal izan genuenez, antzerki lan hura ederra izan zen oso, baina zinetik oso sentsazio kaxkarrarekin irten ginen: ia-ia ikusle adina antzezle, lotsa, lekuz kanpoko oihu haiek... Oraindik ere han gertatu zena sinesteak lanak ematen ditu.

Horregatik, aurtengo euskal jaietan poztu egin ginen beste zerbait gertatu zelako.

2.b. Herri Antzokia.

Maskarada taldearen txanda izan zen eta bere emankizunera jende mordoska

bildu zen. Gainera, obra ezin hobea iruditu zitzaigun hara bildutako lagun askori. Aspal-diko partez ia barrez lehertu ginen Marx anaiei bu- ruzko Marxkarada obra ikusterakoan. A ze barre algarak!

Obra honek ahaztu samarra genuen humorea- ren balioa gogora- razi zigun. Eta beharbada horre- xegatik Albert Boadellaz akorda- tu nintzen. Gizon hau “Els joglars” talde kataluniarra- ren zuzendaria da, eta behin Gastei- zen emandako hitz- aldi batean zera esan zuen, bera Euskal Herrira etorriko balitz eta obra bat egin beharko balu, es- treina Ajuria Eneakoekin sartu-

ko zela. Azken batean esan nahi zuen euskaldunok gauzak serioegi hartzen di- tugula eta barre gehiago egiteak on haun- dia egingo ligukeela.

Baina Boadella honek beste gauza bat ere eskatzen zion antzerkiari: ondo pa- satzea. Eta ondo pasatzea ez da huskeria bat, eta ez ditu derrigorrez egoera barre- garriak eskatzen. Eta abar, eta abar. Baina aurtengo euskal jaietan, antzerkiari dago- kionez behintzat, helburu hori bete egin da. Eta ez da gutxi.

Beharbada datorren urtean aurtengo gazta irabazlearen inguruan egindako antzerki lanen bat ikusteko aukera izango dugu... Nork daki?

Patxi Zubizarreta

BEASAIN:

Ikutu zahar gutxi dituen herri berria

Ezin daiteke esan, Beasain, bere edertasunagatik inoren aditasuna lortuko duen herri horietakoa denik. Azken mendean, bertan gertatutako industrialte garrantzitsua dela eta, jasan duen hazte azkarrak, herri berri eta inbertsonalaren itxura atxeki dio, lehen begiratu batean behintzat.

Eraikuntza berriak, eta askotan eraiki diren ingurua erabat apurtzen dutenak dira Oriaren inguruan, luzetara hedatzen den herri honetan nagusi. Hala ere, atse-dentzeko moduko toki eta ikusgaiak. Inguru lasaiak, eta naturazaleentzako modukoak, batipat, herriaren inguruetan bantzen dira. Honela, aipagarriak dira, Beasainen alboetan biltzen diren auzoak, hau da, Arriaran, Astigarreta eta Gudugarreta auzoak, eta Aratz-Matxinbenta eta Garingo elizateak, batzuk neurri handiagoan, besteak txikiagoan, garai bateko euskal herrixken ingurumoldea gordezten bait dute.

Beasain mendi inguruko parajeek ere, ez dute zentzu honetan aitzakiarik, ustiaketa azkarraren bila landatutako pinuek esparru honi berezko edertasunaren zati bat lapurtu badiote ere. Beasain magalean hartzen duen Usurbeko tontorra ere azpimarratzekoa da, bere 704 metroekin talai-mendi ezin hobea bait da. Tontor honetatik, eta gure artean hain sarritan izaten den lainorik ez bada, Beasain eta ondoko herrien ikuspegi ezin hobea eskaintzen da.

Baina badaude, nahiz eta ziurrenik Usurbe izan beasaindarren artean mendi-tontorrik ezagunena, honen garaiera gaitzen dutenak. Eta azken hauen artean, eta aintzinatik gorde izan duen kon-dairagatik, Murumendi da herriaren maitena. Izan ere, 864 metrotaraino altxatzen den tontor harritsu hau, tradizio eta kondaira kuttunen habia da. Bertan bizi zen, garai batean hainbat beasaindarri loa behin baino gehiagotan kendu zion Mari, gure herriko eta aldi berean Euskal Herriko beste herriekin lotzen gaituen jainkosa xarmant eta garratza.



Begibista batean ezkutuan gelditzen den arren, ausartenentzat, Murumendiko kobak, aurrez aipaturiko Mariaren etxeak, saltsa berezia gaineratzen dio Beasaindik Murumendiraino egin daitekeen ibilaldi atseginari. Gainera, Usurbetik Beasaingo inguruak argi-argi ikusten badira, zer esanik ez, Murumendi gainetik ikus daitekeenaz. Urola bailara azpian, itsasoa ere ikusten bide da eguraldiak laguntzen duenean-eta.

Murumendi ondoan, eta herriak Itsasondorekin muga egiten duen aldera, antzeko garaiera duten beste bi tontor ere nabarmendu behar dira, 825 metro dituen Mutxiki alde batetik, eta 814 metroko Eizeta bestetik. Baina ingurugiroko gozagarriez gain, bestelakoak ere eskaintzen ditu Beasainek. Arte aldetik esaterako, nahiz eta beste hainbat leku eta herri itzalik egitekorik ez izan, ezin da ukatu, arteak, eta batipat antzinan ohizkoa zen moduan erlijioari lotuak, bitxi txiki baina preziatuak eskaintzen dituenik.

Andre Mari Zerutuaren parrokia da, adibideetako bat. Oso antzinako eraikuntzaren gainean, XVI. mendetik aurrera, egin dira bertan berrikuntzarik nabarmenenak, ia-ia XVIII. menderarte jarraitu zutenak. Ezaugarri nagusiak, basiliza itxurako oina, eta buruan absidea izatea dira. Ezker hormari atxekirik, Igartzako kapera agertzen da, eta XVII. mendean eraikitako kanpandorre bikainak burutzen du. Erromaniko kutsua gordetzen duen arren, gotiko berankorreko arkitektur elementuak dira nagusi. Barneko apaindurari dagokionez, erretaula da azpimarragarriena. Aipatzekoa da, duela gutxi jasan zuen berrikuntza, 1989an bukatutakoa.

Beasaingo hirigunean bertan dauden beste bi eraikuntza erlijioso nabariak, Loinazko Andre Mariaren ermita, eta Loinazko San Martinen Basiliza dira. Bietatik lehenengoa, denboran zehatz kokatzea zaila den arren, aztarna nagusiek azaltzen dutenaren arabera, Erdi Arokoa da. Hala ere, 1729an berritu zuten, hasie-

rako oina, hiru aldetako elizatari portikatua eta estilo barroko ezpataina mantenduz. Bigarrena, Loinazko San Martinen Baseliza, izena ematen dion santuaren jaiotetxearen alboan dago eraikia. 1652an hasi zen baselizaren eraikuntza, eta 1712rarte ez zitzaion benetako bukaera eman. Ezaugarri funtsezkoa, probintzi guztian bakarra den gurutze greko erako oinaren jabe izatea da, eta estilo neoklasikoa da nagusi. 1988an berrikuntzak egin ziren, baseliza honetan ere.

Auzoetara iraganaz, Arriarango San Pedro eliza da dudarik gabe arte aldetik garrantzitsuena. Nabe bakarreko eliza da hau, kanpandorra eta honi lotutako bi kaparrez hornitua. XVII. mende-hasierako erretaula du barnean, eta edertasuna dute sobera baita ere, bi bataio-ponteeek. Hauetako bat, zutabe ildotuan bikainkiro tailatua, XVI. mendekoa da, Astigarretako San Gregorioren kapera, eta Garingo San Sebastian ere, ikusteko modukoak dira.

Baina herri-arkitekturak ere, badu zeresanik Beasainen. Antzinako egiturak mantentzen dituzten baserri eta etxeez gain, Astigarretako Latxe baserria esaterako, probintziako zaharrenetakoa, jauretxe baten jabe gara gure herrian besteak beste. Beasaindar gehienak eza gutuko dute ziurrenik, oin karratua duen Igartzako jauregia, "U" erako patioa da bereizgarriarik garrantzitsuena, eta erdi-puntuko arku bat iraganda, iristen da bertara. Patioan, aurrez aurreko nabea eta

bi alboetakoak nabarmentzen dira. Garai bateko izaera erdimilitarra gogoratuz, bi leiho erdibitu pieza bakarrez eta erdian sarrera babestuz burdinazko barra batekin egindakoak mantentzen ditu.

Igartzari eta historian zehar esanahi uka ezina izan duen burdinolari atzekita, 1983ko uholdeek, egurrezko presa bat utzi zuten agerian, noizkoa den ziur zehaztea ezinezkoa bada ere, olaren moduan ustez XV. mendekoa dena. Kontserbazio arazoak direla eta, gordeta aurkitzen da egun presa honen zurajea.

Oro har, herri gehienetan, udaletxea izan ohi da arkitektura zibilean esanahi handienetakoa izaten duena. Beasaingoa, mende honetan eraikia da, aurrerago zegoena, zaharragoa, eta soilagoa ordezkatzuz. Iragandako estiloak nahasten dira eraikuntza honetan, erdi puntuko arkuak, estilo klasikoko lerro zuzenak, eta mudejar estiloa duen dorre txiki bat, erlojua zintzilik duela.

Artearen beste arloetan ere aurki ditezke gauza ikusgarriak. Hala nola, Astigarretako "Ecce Homoa" eta Loinazko Andre Mariaren taila eskulturak. Pinturan berriz, Andre Maria irudikatuz agertzen den koadroa, eta CAF enpresako batzarre- aretoan dauden Dario de Regoyos-en bi hormirudi dira aipagarrienak.

Baina herri moduan, Beasainek eskaintzen du zerbaite gehiago ere. Aisialdia era batera edo bestera emateko badago non aukeratu. Paseatzearen lagun direnek, edo eserita jendea ikustea atsegin



dutenek, dudarik gabe "Gernika Pasealekuan" (Pergoleta) dute euren txokoa. Herriaren zehar barreiatutako taberna ugariak, adin guztietako jendearen topaleku dira, eta kirola maite dutenentzat, Antzizar polikiroldegian eskaintzen dira zenbait aukera. Hori bai, zinazaleek, oraingoz beste herriren batera joaten jarraitu beharko dute.

Idurre Eskisabel Larrañaga

Zer nahi hura:

PINTXOTAN: denetik
OGITARTEKOAK
BAZKARI eta
AFARIAK



LOINAZ Taberna — Jatetxea


BAZKARI ETA AFARIAK

K/ Nagusia, 27 — Tlf. 88 20 07 — BEASAIN



Kawasaki YAMAHA

SUZUKI HONDA



ZUREMOTO, C.B.

Poligono Hiribarren, Atze 1
20210 LAZKAO (Gipuzkoa)

Teléf. (943) 88 39 03



Zure Argazki

Urdaneta 18 • Tel. 889325 • 20240 ORDIZIA

Patxi

ERRETEGIA

Tfnoa: 80 15 75

LIERNI

LEIAR

KRISTALDEGIA

Eraikin eta merkatalguneen
Kristal ezarretzea - Beirategiak - Orma-ispiluak



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua, z/g. Tfno: 88 88 24

BILTEGIA: Beasaingo Industrialdea, Salvatore Auzoa. Tfno: 88 60 70
BEASAIN

UTOESKOL ARALAR

Urdaneta, 64. Tel. 881651. 20240.ORDIZIA (Gipuzkoa)

GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20 -Tfnoa: 88 87 02
20200 B E A S A I N



AUTO ESKOLA

TELEFONOAK:

Lazkao: 88 72 99


Beasain: 88 18 96

GIPUZKOA



MUJIK LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA



Inprimategia

Nafarroa Etorbidea, 9

Tfnoa: 88 94 82

20200 B E A S A I N

- Zerbitzu zuzenak furgonetarekin
- Zerbitzu nazionalak
- Zerbitzu internazionalak

gaur express

mensajeros-mezulariak

BEASAIN 88 89 38
88 83 17

TAPIZ ETA GAINEZTADURA
TAILERRA

B i O K , c . b .



Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.
Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN

GARAJE "LAZKAO"



Renault ZERBITZU OFIZIALA

Salmenta eta jatorrizko errekanbioak
kotxe konponketa orokorrean

San Prudentzio Auzoa, z/g. Tfnoa: 88 24 42 LAZKAO

(Osa itzazu Amurizaren bertsook)

Goierriko Gautxorien jira

1
Aterik ate goaz
limosnaren
elizara sartuko
..... ez uste.
Inor badago triste
zahar edo gazte
jira gurekin
etorri zaitezte

4
"Zigor" eta "Tulipan"
..... dira
sartzeko pronto eta
..... erretira.
Musika eta dantza
.... eta
sakelak eta
goazen

7
Pasatu dugu toki
..... errebista
..... eror liteke
gaueko
Baten bat bazait
Bizkaikoa naiz eta
Lazkaoko frailek
.... dute lista.

10
Mandamentuak hamar
..... berdin
..... bada
aukera
Bukatu nahi dut
aspertu
niregatik bakoitzak
.... egin.

2
Famatua omen da
..... Golden
..... hori
badakite non den.
Hesteak
.... dena ondoren
oilarrak jotzen die
etxera baino ...

5
Olaberriko "Fami"
.... da zarata
gasolina
asteko soldata.
..... bat hartu
bestea nork eman
..... eraman falta.

8
..... elizetan
geunden
orain zulo hoietan
.... dugu
Besterik ezin bada
..... ta kito
erortzen dena ez da
hain errez jaikiko.

Xabier Amuriza.
(Goierriko Jaialdia Lazkaon. 79-1-26)

3
..... gazi-gozo
Beasaingo "Sunday"
..... jendez betea
"Oliver" ere bai.
Begiak luze eta
belarriak
..... sartzen denak
..... ez du

6
Protestak ziren
hura ez zen festa
.....
andre eta neska.
Etxean ta
hor lan extra
..... hori
martxa ona ezta.

9
Zenbait jaia
..... egostea
eta suerte pixkat
..... bestea.
Hotzean ikusita
... .. tristea
..... lanean
sartzea astea?

Sikulusaltsa goierrieran

Esnegañak aprobatxatzeko era on bat

Tartera batean patatak xabal eta mee ebaki ondoren zoria estali artean jarri. Olio pixkat bota. Su gañean biguntzen eduki. Edozein arrai presko, gatza bota eta tartera sartu labeen. Erdi egiñean dagoela atera tertera ori. Arraia ireki edo zabaldu. Kendu ezurra. Arrai gañean jarri esne gaña. Sartu labeen eta doratzen asten danean atera eta serbitu maaiera.

Osasun aholkuak

Aknea (espinilak)

Oraingo honetan, bereziki gaztaroari dagokion arazo batez arituko gara. Aknea 12 urtetik aurrera hasten da orohar eta 25 urte edo gehiagora arte iraun dezake. Hala ere, ugariagoa da 15-20 urte artean. Haseran kopetan agertzen da eta gero masail, okotz eta lepoan ere bai. Aldi berean, bizkarrean, bularraldean eta belarrian ere ager daiteke. Kasurik larrienen gorputz enborrean, ipurdian eta izterrondoan sor daiteke. Oso ugaria izan arren, gaixo hauetatik batzu bakarrik dira tratamendua hartzen dutenak: batzuk, beren gurasoek adinari dagokion fenomenu normaltzat hartzen dutelako; beste batzuk, arduratzeko ez dela eta tratamendu luzea duenez, aspertu eta utzi egiten dutelako.

Osabidea

Hobekuntza 3 eta 5 hilabete barru nabari izaten da eta kaltea desagertu arren ezin da sendatutzat jo, berriro atera bait daitezke.

Zer egin aknea edukiz gero?

1. Arau orokorrak bete.
2. Zeure medikuarengana joan osabide egokia jartzeko.

Arau orokorrak:

Jan neurria: ez dago egiaztatuta txokolate, koipe, gozoki eta mariskoa jateak sortarazi eta edota aurretik dagoena okerragotzen duenik. Kasu honetan norberak ikusi beharko du kalterik egiten dion ala ez.

Espinilak atera. Ez da egin behar. Hori egiteak gaitza egiten du eta askotan or-bainak, zikatrizak, geratzen dira.

Eguzkia: Kasurik gehienetan kanpoko itxura hobetzen da eta desagertu ere bai, baina eguzkiaren izpi ultramoreek efektu berezi bat sortzen dute eta hilabete batzu

barne, udazkenean, aknea berriro sortzeko kausa izan daitezke.

Onena, filtro batez babestuta eguzkia hartzea litzateke.

Garbiketa: Gehiegizko grasa kentzeko etengabeko garbiketa ez da aholkugarria eta ezta jaboi bakterizidak erabiltzea ere. Nahikoa da gauean garbitzea, oso fuertea eta sumingarria ez den jaboi batez.

Kosmetikoak: Arlo honetan aurrera egin bada ere, askok efektu komedogenikoa dute. Kosmetiko bat baino gehiago batera eta egunero erabiltzea kaltegarria izan daiteke. Zilegi da hauts itxurako kosmetiko bat edo grasa gutxiko krema bat erabiltzea, kolore pixkabat emanez zauri txikiak estaltzeko.

Eta gainerakoa, badakizu, arau orokor hauekin ez bazaizkizu desagertzen, jo zure medikuarengana.

Miriam Berruete (Medikua)



Edurne Aranburu,
internazionalista:

“Beti gelditzen da berriro altxatuko diren esperantza”

BOST urte daramatza Nicaraguan internazionalista moduan. 1984ean bi hilabete igaro zituen bertan eta handik bi urtetara, 1986an, bertara abiatu eta bost urte iragan ditu. 31 urtetako idiazabaldar hau erizain auxiliarra da eta Managuako hospital batean dihardu lanean azken bi urteetan, nahiz eta aurretik beste zenbait lekutan egona den, beti ere osasunaren esparruan.

Eguno egoeraz hitz egiterakoan, oso larria dela azpimarratzen du, “Langabezia eta pobrezia handitu egin dira. Baina egoerak okerrera eginaz gain, desberdintasun sozialak biziki handitu dira, edo askoz ere gehiago ikusten dira behintzat. Lehen aberatsak beren zonetan ibiltzen ziren, edo ez ziren horrenbeste ikusten. Horrez gain Miamitik ere asko etorri dira, eta horiek hango modak, auto handiak eta abar ekartzen dituzte.

Droga, delikuentzia eta prostituzioa modu nabarmen eta bizian ari da hedatzen nonahi, “trafikatzailerak Miamitik datozen gazteak dira eta droga Kosta Atlantikotik sartzen da. Gogorra da bost urte baino askoz gehiago ez dituzten haurrak pegamendua arnasten ikustea”.

Kaleko giroa ere —Managuan behintzat,

non Nicaraguako populazioaren erdia bizi den— arras aldatu dela azaltzen digu Edurnek. Are gehiago internazionalistekiko. “Kontrak kalean daude eta oso kontuz ibili behar duzu esaten duzunarekin. Sandinistekin zaudela esaten baduzu, zerbait gertatzea edo kanporatua izatearen beldurra duzu. UNOren garaipena eta gero, hasieran, agresioak ere izan ziren. Ez dut inoiz agresiorik jasan baina autobusean behin baino gehiagotan sartu dira nirekin. Orduan paso egin behar duzu, esan edozer gauza eta kitto”.

Sandinistak gizarte mailan nagusi izanda ere, oraindik hauteskundeetako porrotaren zama gaitetik kendu ezinean daudela zehazten du, «gainera zuzendaritza eta baseen arteko hausdura handia gertatzen ari da. Oraindik ere zuzendaritzak kontrolatzen du herria, baina gakoia da ea urruntze prozesu hori gelditu ezik, zuzendaritza herriaren erantzun espontaneoak kontrolatzeko gai izango den”.

Egoera gogortu den bezala ikusita, ea itzultzeko gogorik baduen galdetzerakoan, baikortasunaren kimua agerian geratzen da, “beti duzu herri hori berriro altxatuko den esperantza”.



Nekane Aranburu

idiazabaldarrak 20 urte ditu. Aurtun beteko ditu 21. Ikasketak ere iragandako aurtengo kurtsoan bukatu nahi zituen. “Lanca” Diseinu eta Moda eskolan ari da. Eskola honek Bilbon eta Donostian ditu egoitzak.

Alemanian, Düsseldorf-en, “Igedo” azoka izaten da. “Lanca” eskola bitan aurkeztu da. Iaz ez zuen saririk lortu, baina, aurtun bai, lortu du, Nekane Aranbururi

esker: “Ikasle batzuek diseinu batzuk aurkeztu genituen Igedo-rako, eta ikaskideek nira aurkeztu zituzten”.

Nekane emakumeentzako azpiko arropa diseinatu zuen, baina eskolan denetarik egiten dute. Baina diseinatzea ez da kontu bakarra. Gurean ez behintzat. Hemen ez dago industriarik modaren alorrean, eta Nekane berak josi behar izan zuen Igedo-rako azpiko arropa: “Hamur egun pasa nituen jo eta ke lanean. Eta oso denbora gutxi nuen dena bukatzeko”.

Baina Nekane badaki gogor behar egiten: baserrian jaoa da, eta ohituta dago baserriko lan nekosoetara.

Josune Bereziartu

Beasaingoa da eta hemeretzi urte ditu; datorren urtarilean betetzen ditu hogeia. Hamazazpi urterekin hasi zen eskalatzen, rokodromoetan eta: “Lagunarteko mutil batek gonbidatu ninduen, eta harrituta geratu nintzen”.

Orduan erabaki bat hartu zuen: futbola utzi eta eskalatzen hasia. Futbolearen hondartzan aritzen zen. Eta hondartzatik mendira: “Asteburero joaten hasi nintzen”.

Josunek bi lehiaketetan hartu du parte. Lehenengoan Sestaon, bertako lehen “indoor” txapelketan. Txapelketa honetan — Euskadi-mailakoa — irabazle izan zen. Bigarrena, estatu espainiarrekoa, apirilaren 20an egin zen eta Josunek seigarren postua eskuratu zuen: “Nahikoa gaizki ibili nintzen”.

Kirol honetan elikadura asko zaindu behar da. Josune barazkijalea da. Haragirik ez jatea da zaila Josunerentzat, baina gozokiei uko egitea! “Izugarrizko enbidia pasatzen dut gozotegien aurrean”.



“Habe”-tik hartua.

Urteac eta hillac

Urteac eta hillac
gauac eta egunac
badijoaz contura
emango dugunac
Consideratu vitza
nor bere barrunac
nola amazen diran
projimo lagunac
noizbait artuco gaitu
arrasaldade yllunac

Hobrac icusico ditu
bacuizac bereac
cer virtute daruzcan
Cristoren fedea
Naiz izan aberatsac
igual pobreac
zucen neurriko gaitu
guztien jabeac
Finic eztu izango
Eternidadeac

Bildur izateco da
justicia orri
arabear degunoc
bagauteque larri
Nor bere barruan bera
beguiratcen jarri
gueren concienci
esaminatu garvi
cenba(t) calte eguin diogun
lagun projimoari

Juizio unibersala
datorren orduan
ezta erremedioric
egongo munduan
Juezac cargu arzen
guztien buruan
nire bere Numeroa
icusi nunduan
gaizqui billatucozan
galdu bagenduan

Bere satisfacioa
claru eracuchiric
justuac artuco ditu
gaiztuac utziric
desengañatuco dira
bertatic etsiric
infernuc taberna
amilca jetsiric
Eternidade guztian
egongo dira ichiric

Dolore eguiasco (...)
egiten duenac
alcanzatuco ditu
dicharic onenac
lenago irabaciric
gurezat daudenac
mediuac billatu
ejemplu orrenac
Amar Mandamentuac
gauzaric oberenac

Llamadaco trompetac
deitua du osca
Liztapena yarriac
seguru badauzca
Munduco maldadeac
aurrean doblezca
Guchi juanac ere
ar dezagun quezca
Iñori ucatzeric
au (iz)ango ezta

Ay ura calabozo
triste ta hilluna
peligro gaiztoan
seguitcen diguna
Noizbait arguituco da
munduan eguna
provehu guchirequin
damuco (zai)guna
ezpadegu pagatcen
projimo laguna

Beraren legue santuco
amar Mandamentu
disponitu zizquigun
nola guardatu
Bacoiza bere hobraz
ongui acordatu
nundic nora dituan
puntuac erratu
Aren escritura
eztadin borratu

Au icusico degu
irugarren puntua
jaiotcen dan guztia
dago obligatua
zucen artuco digu
guztioy contua
liburu seguruan
claru parabua
Au izango da pena
ecin ucatua

Acusatu gaitezen
munduco jenteac
zuzen viurtuzera
bacuizari bereac
Bide gaizto.. ga.. duta
pagatu bagueac
Ori aginzen digu
Cristoren legueac
Eztigu barcatuco
beraren fedea

Cuidaduz erabilli
munduco trabesac
eztigu balioco
guerao interesac
Bazuec nai ditue
emengo grandezac
orietati datoz
ascoren pobrezac
Contuan daramazqui
guztien Juezac

1850 aldera egina.

Autore ezezaguna.

Altzagako apaizetxean Patxi Sarriegik aurkitua.

fotokonposaketa

jotokontposaketa

INPRIMATEGIA primategia POSAKETA
INPRIMATEGIA imategia POSAKET.
INPRIMATEGIA antza antza POSAKE
INPRIMATEGIA antza antza POSA
INPRIMATEGIA antza antza POSA

FOTOKONPOSAKETA
IN PRIMATEGIA

Tfnoa: (943) 37 15 45 Fax: (943) 36 54 93

INPRIMATE